


PIARRES LARZABAL

BORDAXURI



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-888
9982
J Bilbo
Pianity
Dec. 1962

BORDAXURI

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 11 -

**Colección Auspoa - Plaza de Santa María, 2
Tolosa - Guipúzcoa - España**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta.

Atzerrian: 275 peseta.

Ongilleak: 350

Ale bakarra: 25

PIARRES LARZABAL

BORDAXURI

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 246—1962
N.º DE REGISTRO S.S. 6.989—1961

IMPRESO EN LOS TALLERES TIPOGRAFICOS «ICHAROPENA»
ZARAUZ (GUIPÚZCOA - ESPAÑA)

ARKIBIDEA

	<u>Orraldia</u>
Itz-aurrea	9
Pierre Larzabal	11
Egilearen aintzin-solasa	15
BORDAXURI	
Lagunak	16
1'en gertaldia	18
2'en gertaldia	50
3'en gertaldia	64
4'en gertaldia	80
5'en gertaldia	92
6'en gertaldia	116

ITZ-AURREA

Larzabal apaiz jaunaren teatro-lanak emen ateratzea, aspaldian erabaki gendun. Bañan nola atera, ortan izan degu nai baño buru-auste geyago.

Izan ere, jayotako euskeraz, au da Laburdiko euskeraz, atera ezkerro, Auspoa-ren artzallerik geyenak ezin konprendituko zuten, ta alde ontako teatro-taldeak ere etzuten probetxu aundirik izango.

Gipuzkoako euskeraz atera ezkerro ordea, artzalleak konprenditu bai, bañan pena zan, berezkoa alde bat utzita, itzulpena ateratzea aurrena.

Zalantzan, korapillo au nola azkatu ezin asmaturik, denbora luzea joan zaigu.

Bein batean ordea, ala esan zigun euskaltzale jaun prestu batek:

—Ta, zergatik ez dezute bitara ateratzen?

—Nola bitara?

—Bai, bitara: orri-alde bat ango euskeraz, ta aldamenekoa emengoaz. Ia onela noizbait ere eskualdunak eta euskaldunak alkarren mintzaira ta izkera ezagutzen asten geran...

Etzitzaigun gauza okerra iduritu. Bati ta besteari galdetu ta danai oso ondo iduritu. Ta alaxe egin degu.

Batek ordea zera bat ipiñi zigun:

—Bitara ateratzen badezute, biren tokian bat bakarra sartuko dezute.

Ala izan ez dedin, letra txikiagoa erabili degu.

Bañan eskuara ta euskera alkarren parean ikustean, kezka bat sartu zaigu barrera: Era ontaz, gure utsegiñak ageri agerian gelditzen dira, beste itzulpenetan baño askozaz ere nabarmenago. Eta nork ez du utsegiñik izaten?

Euskaldunak, izketan piska bat berotu geranean, ez degu esaera bat esan gabe uzten: "gaizki esanak barkatu", onekin mingañaren okerrak bat batean zuzenduko balira bezela.

Nik ere ori bera esango nuke: "gaizki itzuliak barkatu", ori esateak ezertxo konponduko ez badu ere.

Beste buruauste bat ere izan degu: emengo euskeraz jartzeko, bi bide zeuden ezker ta eskubi: edo asko aldatu, ta ori berezko itxura galdu-araztea litzake, edo gutxi aldatu, ta orduan emengo belarrientzat esaera gordin asko geldituko lirake. Erdetik jo degu, ez bat eta ez beste, onela bearbada iñori gusto osorik eman-go ez badiogu ere.

Komeni zan, ta Larzabal jaunaz argitasun labur bat jarri degu aurrean. Ori ez degu emengo euskeraz ipiñi. Bialdu ziguten bezela utzi degu.

Orra ba esan zein jokabidez sayatu geran, "Bordaxuri" au argira ateratzeko.

PIERRE LARZABAL (1)

Adixkide ona:

Galdatzen ditutzu zehetasun zombait Larzabal jaunaz: agian ez da beranduegi izanen zure beharrentzat. Hori sortua da (jayoa), 1915'an Azkaine herrian, Donibane Lohizunetik (San Juan de Luz'tik) 6 kilometrotan, apeztua 1939'an, bere eskolak eginik Uztaritzen semenario ttikia eta Baionan semenario haundia. Apeztu zelarik eman zuten bikario (coadjutor) Hazparne herrian eta han egon bikario 12 urtez. Artetik izan zen gerla, gerla egin du eta presonier ibili Alemanian, baina handik libratu zuten gerla bukatu baino lehen eta Hazparnerat etorri zen.

Teatro anitz egiten zuen hango gaztekin, beti kasik komediak berak asmatuz. Berak ere ez daki xuxen zombat duen eginik, ez baitu bat ere atrikitzen. Behin bi igandez segidan eman beharra zuten ikusgarri-jostagailu bat: eta oharturik jostagailu haren parte batek

(1) Kakoen arteko oar ta guzi, Larzabal jauna ondo ezagutzen duen jaun baten eskutizetik artua.

etzuela arrakasta haundia, aste batez berriz eginik, berriz ikas-arazi zioten bere gazteri eta bigarren igandean lehenean bainon anitz hobeki eman.

Larzabal apezak asko izkribatzen du: dela "Herria" astekarian, dela "Gure Herria" ilabetekarian, dela antzerki, dela kondaira, dela lehengo orhoitzapen edo paper zaharretako ikertze. Eskual-Herrian alde huntan badelarik zerbait besta, guziz gazteriak ematen dituen libertimenduetan, "Eskualdun Gazteria" deitzen den Action Katolikoaren bestetan, denetarik Larzabaleri dei egiten diote eta denentzat zerbait asmatzen du bere talendu ederrarekin.

Apeztu-ta 12 urteren buruan, Hazparnetik eman zuten Zokoan. Zokoan etzen erretorik: Zokoa zen Urruñako eta Ziburuko bi herrien hegal bat. Doi-doi-a zombait urte hetan bazaukan kapilla ttiki bat eta han Urruñako bikario batek ematen zuen meza igandetan. Larzabal izan da han eman duten lehen erretora, eliza egin behar, apez-etxea egin behar, eta bertzalde arimetan asko lan egiteko: horko jendea baita kanpotik etorria, nun-nahitik, arrantzaleak, Frantzia behereko Bretaniatik, bai-ta ere Espaini aldetik.

Orai eliza eder bat bada egina, Larzabal beraren asmutik, ez arras bertzeak iduria, bainan badu asko egin beharrik bukatzeko. Apez-etxe pollit bat badu ondoan egina. Milako bat jende bada han eta beti emendatzen ari, anitz maite duten beren erretora elizan ibiltzen ez direnek ere, denekilakoa baita, guziz ona da behardunekin, eriekin, soldado Algerian direrentzat. Hango jendea gehiena arrantzalea baita, Larzabal arras arrantzalen apeza da: badazki heien laneko moldeak, lan horien eta

arrain mota berezien eskual izenak; mariñelen omonier bigarrena da San Juan de Luz'eko portuan. Egiten dugu hemen, Larzabal eta omoniera gidari, mariñelen agerkari bat Dakarreko arrantzalentzat, noizbenka agertzen dena, gehiena erdaraz denek ulertzeko gisan.

Horra hor zorbait zehetasun Larzabal jaunaz. Orai hameka urte eginen du Zokoan dela.

Aski duzu hor emanekin nahi duzun bezala baliatzea zure AUSPOA'rentzat...

Goraintzi milaka eta izan ongi.

E. L.

EGILEAREN AINTZIN-SOLASA

BORDAXURI antzerki hau, agertua izan da lehen aldikotz Hazparnen, 1952-garren urthean.

Larzabal jaun apheza egon baita 12 urtez bikari herri hortan, artoski argiturik Bordaxuriren gertakariez, lotu zen lan huni.

Hazparnen, nor-nahik kantatzen ditu Bordaxuriren kantuak... Delako Bordaxuri bizi izan da hemeretzigarren mendean.

Etxeen izenak, gertakarien mamia, asko zehetasun gertatu ziren, antzerkiak erakusterrat ematen duen bezala...

Ahatik osaba amerikanoa, ez zen "amerikanoa", bainan aphez beneditano bat, Bordaxuri zaharraren anaia, bere hilobaren kontra agertu zena. Ez ahal zen agertu "amerikanoa" bezain idor.

Larzabal jaunak maiz bere saila derama jende xehe, herresta, hobendunak dituela xurritzen eta goratzen.

Hemen ere, hortarik ari da.

P. Larzabal

JOKALARIAK

BORDAXURI: 50 urthe, eskualdun laboraria, dortitza.

AMERIKANOA: 45 urthe, muthil zahar, Ameriketarik sosdun jina, Bordaxuriren anaia.

GANIX: 75 urthe eskualdun laborari zaharra, lehengo bien aita.

TEREXA: 23 urthe, neska gaztea, Bordaxuriren alaba.

KATXO: 50 urthe, erdi buhamia, Bordaxuriren etsaia.

KLOTILDA: 25 urthe, Katxoren alaba.

ERRETORA: 70 urthe, herriko apheza, ttipia ta bere gisakoa.

PAXKAL: 45 urthe, zeinu joilea, parregarria.

MAYI: 50 urthe, auzoko emazte bat.

BERONIKA: { 20 ta 25 urthe arteko neska gaz-
LUIXA: { teak, Mayiren alabak.

JOKALARIAK

BORDAXURI: 50 urte, euskal nekazaria, zarkarra.

AMERIKANOA: 45 urte, Ameriketatik etorritako mutilzarra, Bordaxuriren anaya.

GANIX: 75 urte, euskal nekazari zarra, lengo bien aita.

TEREXA: 23 urte, Bordaxuriren alaba.

KATXO: 50 urte, erdi ijitoa, Bordaxuriren etsaya.

KLOTILDA: 25 urte, Katxoren alaba.

ERRETOREA: 70 urte, erriko apaiza, txikia ta bere gisakoa.

PAXKAL: 45 urte, kapai-jotzallea, parregarria.

MAYI: 50 urte, auzoko emazte bat.

BERONIKA: { 20 ta 25 urteko neska gazteak,

LUIXA: { Mayiren alabak.

LEHEN GERTALDIA

JOKA-TOKIA.—*Ezkaratz muthur bat. Bi athe, bat sukhaldekoa, bertzea ezkaratzetik kanporatekoa.*

GANIX (Su-pala gider batez, artho bihitzen ari da... bihotzetik minez dago).—*Nago, barneko oren zahar hau, ez othe zautan laster geldituko. Ha, hatsa... hatsa... funtsian, ez da estonatzeko nere barne huntan zerbait zapartaturik ere, nik jasaiteko dituztanekin...*

BORDAXURI (Sartzen da, arrazteilu bati hortzen emaiten ari).—*Aita, bihotza hola eri eta, zure tokia ohian da ez eta hemen.*

GANIX.—*Ohean ez naukek, hemen gerhartzten denarekin.*

BORDAXURI (Bizi-bizia).—*Bethi musika bera beraz!!! Preso dena ez da zurea, ene semea da.*

GANIX.—*Hire semea ba... bainan ene semearen haurra, eta ene semetxia... eta hiru egunen buruan haren jujamendua Paben... eta nehor ez hemen mugitzen haren salbatzerat... Ahurreetan erhi bezenbat gizon lekuko haren galtzeko... etzekoak aintzinean eta nehor ez haren salbatzeko!*

LENENGO GERTALDIA

JOKA-TOKIA.—*Ezkaratz baten bazterra. Bi ate, bata sukaldekoa, bestea ezkaratzetik kanporakoa.*

GANIX (*Su-pala baten kirtenarekin arto zuritzen ari da,... biotzetik gaxo dago*).—Bildur naiz, barrengo erloju zar au ez ote zaidan laister geldituko. Ai, arnasa!... arnasa!... Izan ere ez da arritzeko nere barren ontan zerbait zartaturik egotea ere, nik eraman bear dedanarekin...

BORDAXURI (*Sartzen da, eskubare bati ortzak jartzen ari zayola*).—Aita, biotza ola gaxo ta, zure tokia oyea da, ez emen.

GANIX.—Oyea ezin egon nauk, emen gertatzen danarekin.

BORDAXURI (*Bizi-bizi*).—Beti musika bera, beraz!!! Preso dagona ez da zurea, nere semea da.

GANIX.—Ire semea, bai... bañan nere semearen aurra, eta nere besoetakoa... eta iru egunen buruan aren juizioa Paben (Pau'en)... eta iñor ez emen mugitzen ura salbatzeko... Gizon pranko ura galtzeko testiguak... etxekoak aurretik... eta iñor ez ura salbatzeko!

BORDAXURI (Gaixtoki).—*Hanbat gaixto harrentzat, erein duen hazitik, biltzen badu.*

GANIX.—*Hanbat gaixto guretzat...*

BORDAXURI.—*Guretzat?*

GANIX.—*Piarres, gure odoletik duk,... Bordaxuritarra, hi eta ni bezala... Haren ohorea galtzen baduk, hirea eta gurea ere itzaliko duk.*

BORDAXURI.—*Ene semearen ohorean ez dut nik sartzerik... erreka zikinduaz ez dire gainur garbiak hobendun.*

GANIX.—*Odol erreketan ez duk ez gainik ez behererik... Odol bereko, putzu berekoa... Bordaxuri bati odola galtzen badiok, Bordaxuritarr guziak desohoratuko dituk.*

BORDAXURI.—*Ustela onetik berextiak, ez du ona galtzen bainan ona usteletik begiratzen.*

GANIX.—*Ustel puska ttipi bat balinbada onean, onak ura jasan eta irets dezala... Onak ez dezala bere burua zauri ustel puska kenduz.*

BORDAXURI (Kexu, botza altxatuz).—*On hunek ba ahal du aski ustelkari jasan eta iretsirik... Askia eta sobera... Galerek on bezate, gure egin ahal guziek onthu ez dutena... (Atheratzen da).*

GANIX (Bakarrik).—*Ha, ene bihotzaren berpakoak... badut uste heriotzea athean dutan... laster ethor bedi... zeren bizi huntan, ez da gehiago enetzat zorionik. Bi seme ukan ditut... Ikusi duzue zaharrena. Hiru haurren aita da: bi seme eta alaba bat... Gazterik alhar-gun gelditua, nihaur gelditu nintzen bezala... Emaztea hil zaiolarik, Kadet gure lehen kusiak, harek haurrik ez zuela eta bat hartu dauku, eri bat gaixoa, deusetako on ez dena...*

BORDAXURI (*Zitalki*).—Ainbat gaizkiago beretzat, erein duen azitik biltzen badu.

GANIX.—Ainbat gaizkiago guretzat...

BORDAXURI.—Guretzat?

GANIX.—Piarres gure odolekoa dek,... Bordaxuritarra, i eta ni bezela... Aren onra galtzen badek, irea eta gurea ere itzaliko dek.

BORDAXURI.—Nere semearen onran ez det nik zertan sarturik... erreka zikindu bada, ez dira goiko ur garbiak errudum.

GANIX.—Odol-erreketan ez dek ez goikorik ez bekorik... Odol berekoa, putzu berekoa... Bordaxuri bati odola galtzen badiok, Bordaxuritar guziak desonratuko dituk.

BORDAXURI.—Ustela onetik apartatzeak, ez du ona galtzen, baizikan ona usteletik libratzen.

GANIX.—Ustel puska txiki bat baldin bada onean, onak sufritu ta irentsi dezala... Onak ez dezala bere burua zauritu, ustel puska kenduz.

BORDAXURI (*Asarre, boza altxatuz*).—On onek badu naiko ustelkeri sufritu ta irentsi. Naikoa ta geyegi... Kartzelak ondu beza, gure egiñal guziak ondu ez dutena... (*Ateratzen da*).

GANIX (*Bakarrik*).—Ai, nere biotzaren pampakoa... Uste det eriotza atean detala... Laister etorri bedi... Bizi ontan ez baidago neretzat zorionik. Bi seme izan ditut... Ikusi dezute zarrena. Iru aurren aita da: bi seme eta alaba bat... Gazterik alargun gelditua, neroni gelditu nintzan bezela... Emaztea il zayonean, Kadet gure lengusuak, berak aurrik etzuela ta bat artu digu... gaixo bat gizajoa,

eta Plumagainean, ene seme hau gelditu zen, Piarres eta Terexa bere bi haurrekin... Ene bigarren semea Ameriketarik sosdun jina da; hor bizi da, muthil zahar ostatu batean ganbera bat harturik... Ha, hatsa, hatsa..., bi haur, bai... bainan bietarik kontsolamendu guti... biak bihotz idorrak... Ameriketan nola ibilia othe da hoin laster aberasteko?... eta hemen, zer bizi dabilka?... Muthil zahar, alfer eta ase dagona, maiz debru tzar... Etxeko hunek berriz semea preso dauka... ene semeatxi Piarres... Piarres ene semetxiak auzoko alaba batekin nahi zuen ezkondu. Aitak ezetz... Piarresek aitari tiro bat eman dio... airerat ba naski... Bethi, hau da geroztik preso... horra gure etxeko berriak...

TEREXA (Kanpotik oihuz).—Aitatxi...

GANIX.—To... gure Terexa... Zer da?

TEREXA (Agertuz).—Ha, hemen zinen eta... Ganbararat so egin, barrokirat so egin, nindagon nun othe zinen...

GANIX.—Zer nahi zinuen?

TEREXA.—Ithurrirat johan bainiz, ixtant barentzat, eta auzoko Mayik errana baitaut, jinen dela esku kolpe baten emaiterat, errozu, ni berritz gibelerat jin artian, zaku huntako ilharrak berex ditzan... baitira hainitz bipiatuak...

GANIX.—Ontsa da...

TEREXA.—Oas... zu, bihotza hola eri-eta, lan hortan? Izitzen nuzu... Ohean egoiteko orde... Zerbait nahi duzuia hartu?

GANIX.—Ez, ez... ontsa naiz hola hola. Milesker... Zoazi gostuan ithurrirat... Mayiri erranen diot zer egin...

ezertarako gauza ez dana... eta Plumagañean nere seme au gelditu zan, Piarres eta Terexa bere bi aurrekin... Nere bigarren semea Ameriketatik aberats etorria da; or bizi da, mutil zar, ostatu batean gela bat artuta... Ai, arnasa, arnasa,... bi aur, bai... bañan biengandik ere poz gutxi... biak biotz legorrak... Ameriketara nola ibilli ote da ain laster aberasteko?... eta emen, zer bizimodu darabil?... Mutil zar, alper eta ase dagona, maiz deabru txar... Etxeko onek, berriz, semea preso dauka... nere billoba Piarres... Piarres nere billobak auzoko alaba batekin ezkondu nai zuen. Aitak ezetz... Piarresek aitari tiro bat bota dio... airera noski... Geroztik preso dago... Orta gure etxeko berriak...

TEREXA (*Kanpotik ojuz*).—Aitona...

GANIX.—Ara... gure Terexa... Zer da?

TEREXA (*Agertuz*).—A, emen ziñan ta... Gelan begiratu, ukulluan begiratu, nun ote ziñan negon...

GANIX.—Zer nai zenuen?

TEREXA.—Iturrira noa pixka baterako; auzoko Mayik esan dit etorriko dala laguntza apur bat egitera, ta esayozu, ni ostera etorri artean, zaku ontako babarrunak aparta ditza-la... asko baidaude arrak joak...

GANIX.—Ondo da...

TEREXA.—Ta... zu, biotza ola gaixo ta lan ortan? Izutzen nazu... Oyea egon bearrean... Zerbait artu nai al dezu?

GANIX.—Ez, ez,... ondo nago ola. Milla esker... Zoaz lasai iturrira... Mayiri esango diot zer egin.

TEREXA.—Nere beharretan denak, oihu bat egin beza.

GANIX. Baietz, baietz, haurra... (Terexa atheratzen da, Ganix bakarrik). Ha, Terexa,... Haur on bat zen ttipian... Bainan jitea ari zaio idortzen... Ez da estonatzeko... bethi hemen, gizon pean, eta gure arteko molde borthitzekin... Emazterik gabeko etxean ez laiteke haurrik altxatu behar...

MAYI (Kampotik).—Hela...

GANIX.—Zu zirea, Mayi? Aintzina, aintzina...

MAYI.—Ari zirea, Ganix...

GANIX.—Zerbaitetan denbora pasatu beharrez... Ori, doi-doi Terexak erraiten zautala ithurrirat johan zela, eta, heldu bazinen, ilhar horiek garbituko diozkatzun, hura berriz gibelerat jin artean.

MAYI.—Ontsa da... eta bihotz hori, zertan duzu?... Uste nuen ohean zinela.

GANIX.—Jeikia niz... ez sendoago naizelakotz, ez... Bainan gorphutzari lana emanaz, izpiritua behar bada poxi bat pausatuko zautalakoan.

MAYI.—Zu, bethi zure semetxia gogoan?

GANIX.—Ba, Mayie, ba... Hiru egunen buruan omen da tribunaleko harat-hunata... Ene seme horiek ez dira hartaz ene aintzinean mintzatu nahi ere... Kontzientzia makurrek, argitzalerik ez maite... Etxe huntarat ez da geihiago nehor agertzen ere... Marka txarra hori... Etxe zuzenak adixkidedun baitire...

MAYI.—Diotenaz, hainitz lekuko omen du kontra eta gutti alde.

TEREXA.—Nere bearrean dagoanak, oju bat egin dezala.

GANIX.—Bayetz, bayetz, aurra,... (*Terexa ateratzen da, Ganix bakarrik*) A, Terexa,... Aur on bat zan txikitan... bañan jenioa zakartzten ari zayo... Ez da arritzeko... beti emen, gizon tartean, eta gure arteko modu zakarrekin... Emakumerik gabeko etxean ez litzake aurrik azi bear...

MAYI (*Kanpotik*).—Egun on...

GANIX.—Zu al zera, Mayi? Aurrera, aurrera...

MAYI.—Ari al zera, Ganix?...

GANIX.—Zerbaitetan denbora pasa bear... Oraintxen bertan esaten zidan Terexak iturri-
ra zijoala ta, zu etortzen baziñan, babarrun oyek garbituko ote dizkiozun, bera ostera etorri artean.

MAYI.—Ondo da... eta biotz ori, zertan dezu?... Oyea zifñala uste nuen.

GANIX.—Jeikita nago... ez obeto nagolako, ez... Bañan gorputzari lana emanaz, anima bearbada piska bat sosegatuko zaidalakoan.

MAYI.—Zuk beti zure billoba gogoan?

GANIX.—Bai, Mayi, bai... Iru egunen buruan omen da tribunaleko arazoa. Nere seme oyek ez dute artaz nere aurrean itzegin nai ere... Kontzientzia okerrak ez du argitzallerik maitete... Etxe ontara ez da iñor ere agertzen... Señale txarra da ori... Etxe zuzenak adiskidun baitira...

MAYI.—Diotenez, testigu asko omen du kontra eta gutxi alde.

GANIX.—Bainan, zer? Zertaz dute hoinber-
tze belzten?

MAYI.—Lehenik, aitari tiro eman diola, be-
re etxe phartea, ezkontzeko ezin ardietsi zue-
lakoan aitaren ganik.

GANIX (Bizi-bizia).—Bainan, tiro aireari
eman du... Aitari izialdura bat bakarrik eman
nahi zion... Hil izan nahi ukan balu, uste du-
zuia hoin hurbil danik huts eginen zuela?
Horrek nun du kanorea?

MAYI.—Akusatzten omen dute ere aitaren
omena zikindu duela...

GANIX.—Aitaren omena zikindu? Nolaz?

MAYI.—Aitak ez omen du ezkontzerat utzi
nahi Katxoteiko Klotildarekin... Badakizu zer-
tako?

GANIX.—Zertako?

MAYI.—Aitak berak, bere emaztetzat Klo-
tilda nahi omen duelako...

GANIX.—Baditekea holakorik? Zer?... Gure
seme horrek, adin hortan, berriz ezkontzea
phentsatzen ere duela?

TEREXA.—Nik, dazkitanak, erosi bezala sal-
tzen daitzut...

GANIX.—Uste duzuia Klotildak nahi ere lu-
kela adin hortako gizon bat?

MAYI.—Ho... badakizu oraiko neskato gaz-
teak nolakoak diren? Nik ere baditut biga...
Eta bertzenetaz nahiago dut ixilik egon... ez
baitakit nihaurrek enekin zer behar dutan
ikusi...

GANIX. Bainan, bainan, ezkontza horrek
ez luke kanorerik ere...

MAYI.—Bizkitartean, diotenaz, aita-semek
hortan omen zuten bere makurraren zimen-

GANIX.—Bañan, zer? Zergatik beztutzen dute oinbeste?

MAYI.—Lenbizi, aitari tiroa bota diola, bere etxe-partea, ezkontzeko, aitarengandik ezin eskuratu zuelako.

GANIX (*Bizi-bizi*).—Bañan, tiroa airera bota du... Aitari izu-aldi bat eman nai zion barririk... Il nai izan balu, uste al dezu ain gertutik uts egingo zuenik? Orrek itxura nundu?

MAYI.—Akusutzen omen dute gañera aita-ren izena zikindu duela...

GANIX.—Aita-ren izena zikindu? Nola?

MAYI.—Aitak ez omen dio ezkontzen utzi nai Katxoteiko Klotildarekin... Ba al dakizu zergatik?

GANIX.—Zergatik?

MAYI.—Aitak berak bere emaztetzat Klotilda nai omen duelako...

GANIX.—Izan al diteke olakorik? Zer?... Gure seme orrek, adin ortan, berriz ezkontzea pentsatzen duela?

MAYI.—Nik, dakizkitanak, erosi bezela saltzen dizkizut...

GANIX.—Uste al dezu Klotildak ere adin ortako gizon bat naiko lukenik?

MAYI.—O... ba al dakizu oraingo neska gazteak nolakoak diran? Nik ere baditut bi... Eta besteengatik nayago det ixilik egon... ez baitakit neronek nereekin zer ikusi bear detan...

GANIX.—Bañan, bañan, ezkontza orrek ez luke itxurarik ere izango...

MAYI.—Ez, bañan, diotenez, aita-semeak ortan izan omen zuten beren sesioaren asiera.

dua. Kartiereko gazteria denetaz ontsa jakintsun baita, aitari tutak jo behar diozkatela, muntatzen ari omen dire...

GANIX.—Zer, tutak? Galarrotsak Plumagaineko nagusiari? kontseiluko gizonari? elizako pabillunketariari?... Bordaxuritarren errespeta hortaratua?

MAYI.—Ez zaitela asalda... Ni, aspaldian zuen etxekotua bainaiz, zuekin aise mintzo niz... Denak diren bezala erraiten daukitzut... Hobe baita jakinaren argia, ezin jakinaren errabia baino...

GANIX (Xagrindua).—Ho, ho, Plumagainea hoin behera... Hemen hola eta hura han preso...

MAYI.—Ez duzuia preso denaren ganik deus komixionerik ukan?

GANIX. Ez, zer komixione?

MAYI.—Otsa hedatua da, Piarresek zure lekukotasuna haren alde galdatu dautzula.

GANIX.—Ez dut nik holako galderik ukan...

MAYI.—Nik ez dakit... Fama da Klotilda bere aitarekin izan direla haren ikusten, eta heiekin zure semetxiak galdea igorri dautzula haren alde mintzatzeko tribunalean... Ez dautzua Katxo hemen izan?

GANIX.—Ez, aspaldi du ez dutala ikusi hemen nehor Katxoteikoetarik...

MAYI.—Ha... Ilharraren garbitzea fini dut... Ikusi behar dut zer lan duen Terexak sukalde hortan... (Atheratzen da sukalderat sartzeko).

GANIX (Bakarrik, erdi nigarrez).—Piarres... ene semetxia... egia othe da?... Ene odola huntaratuko zela... Sekulan ez nuen erranen, se-

Erriko gazteria danetaz jakiñaren gañean dago ta, aitari tutak jo bear diozkatela ta prestatzen ari omen dira...

GANIX.—Zer, tutak? Zintzarri-otsak Plumañaeko nagusiari? kontzejuko gizonari? elizako palio-eramalle bati?... Bordaxuritarren errespetua ortara?

MAYI.—Ez zaitezela asaldatu... Ni, aspaldian zuen etxekoa bezela bainaiz, zuekin kupira gabe mintzatzen naiz... Gauza danak diran bezela esaten dizkizut... Obe baita jakiñaren argia, ezin jakiñaren errabia baño...

GANIX (*Naigabetua*).— O, o, Plumagaña aia beera... Emen ola, eta ura an preso...

MAYI.—Ez al dezu preso dagonarengandik mandaturik izan?

GANIX.—Ez, zer mandatu?

MAYI.—Otsa zabaldu da, Piarresek zure testiguanza eskatu dizula bere alde.

GANIX.—Ez det nik olako eskerik izan...

MAYI.—Nik ez dakit... Fama da, Klotilda bere aitarekin izan dirala ura ikusten, eta ayeekin zure billobak eskea bialdu dizula bere alde tribunalean itzegiteko... Ez al dezu Katxo emen izan?

GANIX.—Ez, aspaldi da ez detala emen ikusi Katxoteiko iñor ere...

MAYI.—Ara... Babarrun garbitzea bukatu det... Ikusi bear det zer lan duen Terexak sukalde ortan... (*Ateratzen da sukaldera sartzeko*).

GANIX (*Bakarrik, erdi negarrez*).—Piarres... nere billoba... egia ote da?... Nere odola ontara etorriko zala... sekulan ez nuen esango,

kulan... Bertze zahartasun bat idurikatuz bizia nintzen. (Ixilik ixtant bat nigar egiten du).

AMERIKANOA.—Hep! (Sartzen da). Jainkoak dautzula egun on, aita. Nola duzu bihotz hori? Johan dea?...

GANIX (Bihotza hunkituz mintzo dela).—Errak, seme, errak egia, zertan duzue auzia?

AMERIKANOA.—Ez zaitela keza, aita,... Jujek oro hatzean ezarriko dituzte.

GANIX.—Errak... ez ahal duzue Piarres galduko? Aita ez bada, familia bederen alde izanen ahal dik?

AMERIKANOA.—Yes, aita,... Zoin grignatua ziren muthiko piltzar hortaz?

GANIX (Izigarri penatua).—Ha, horra... hi ere haren kontra!... ez nian bertze beldurrik... Nungo odola duzue zainetan, gisa hortan familiako haur bati hola bihurtzeko? Ez duzueia ikhasi familiak sustengatuz behar dutela xuritu ez eta auzitegietan? (Amerikanoa harat-hunaka dabilia, hixtuz kasurik egin gabe bezala). Piarres duk Plumagaineko premua... Piarresek behar dik hemen segitu Bordaxuriren deitura... Hori duk gure geroa... Familia guzian horren azkartzeari artzeko eginbidea diuk. Eta horren ahultzeari, errekaratzeari ari zirezte... Ez diat konprenditzen... ez diat konprenditzen... ha, ene bihotza,...

AMERIKANOA.—Ez zitela hola asalda, aita. Utz-azu gure geroa gure gain... Terexa ere hor da gero! Plumagainia horren eskuetan hobeki izanen da Piarresenetan baino...

GANIX.—Horrek ez dik gure izena beiratu ko... Eta uste duka kondenatu baten arreba

sekulan... Beste zartzaro baten ustean bizitu naiz. (*Ixilik momentu bat, negar egiten du*)

AMERIKANOA.—Eup! (*Sartzen da*) Jaungoikoak egun on dizula, aita. Nola dezu biotz ori?

GANIX (*Biotza kupituz itzegiten du*).—Esan, seme, esan egia, zertan dezute auzia?

AMERIKANOA.—Ez kezkarik izan, aita... Juezak zera danak bear bezela jarriko dituzte.

GANIX.—Esan... ez al dezute Piarres galduko? Aita ez bada, familia beintzat alde izango al dik?

AMERIKANOA.—Bañan, aita,... ori kezkaz be-tea zaudena mutiko pardel orrengatik!

GANIX (*Izugarri naigabetua*).—Orra,... i ere aren kontra!... ez nian beste bildurrik... Nun-go odola dezute zañetan, gisa ortan familiako aur baten kontra sayatzeko? Ez al dezute ikasi, familiak alkarri lagunduz, eta ez auzitegian, konpondu bear dirala? (*Amerikanoa ara ta onera dabil, tristuka, kasorik egin gabe bezela*). Piarres dek Plumagañeko mayorazkua... Piarresek segitu bear dik emen Bordaxuriren izena... Ori dek gure geroa... Ari laguntzea diagu famili guziaren eginbidea. Eta ura aul-tzen eta erre kara botatzen ari zerate... Ez diat konprenditzen... ez diat konprenditzen... Ai, nere biotza,...

AMERIKANOA.—Ez zaitezela ola asaldatu, aita. Utzi zazu gure geroa gure kontu... Terexa ere or dago gero! Plumagaña obeto egongo da orren eskuetan, Piarrenesetan baño...

GANIX.—Orrek ez dik gure izena gordeko... Eta uste al dek etxaldeko seme on batek konde-

etxeke seme on batek nahiko duela? (Xutitzen da bihotza thorraturuz).

AMERIKANOA (Trufaz bezala).—*Diruduna, aita, denek nahi dute... Diruak, itzal guziak tapatzen ditu... Badakit hori ene gostuz... Ameriketarik itzuliz geroz, etxeke jaun handi guziak, beren alabak eskainka, ondotik ditut.*

GANIX.—*Hobe huke hik ere, denen eskaintza baino, baten segurtasuna bahu... (Jalitzen da).*

AMERIKANOA (Bakarrik).—*Yes, hauxe dira xaharren arrengurak... Ni ezkondu? Ez... Ezkontzen dena, lephotik kordarekin duk... Nahiago diat libro eta biziaz ontsa baliatu... Gero ere, ene diruaren gostuz bederen izanen ahal diat arthazale.*

BORDAXURI (Sartzen da).—*To... hor hiza? Eta... zer berri ekartzen duk?*

AMERIKANOA.—*Ago gostuan, hunekin (diruaren keinua erhez egiten du) denak biltzen dituk... Kurritu ditiat Pabeko handi horiek denak... eta behar den lekuan mintzatu nuk... eta, ba, ba, jujamendua segura duk: hogoi urtheren galeretarik bederen ez dik eskapurik.*

BORDAXURI.—*Dohala bethikotz bixtatik!*

AMERIKANOA.—*Errak, gure xaharra arrunt kezku diuk, muthiko zirtzil horren alde.*

BORDAXURI.—*Ba... xaharra to... eta hura bere semetxia... eta gerthakari guziak ez ditik bethidanik haren begietarik baizik ikhusi!*

AMERIKANOA.—*Nik bethi, Plumagainearen segida nahiago diat Terexaren eskuetan ikusi, ezinez eta muthiko tzar horrenetan. Hire zahartasunarentzat Terexa hobe Plumagainean, nunbaiteko errena baino... Nik ere, ez zekiat, hezur zahartuak ez ditudan hemen ondarra higatu nahiko. Eta enetzat ere, Te-*

natu baten arrebarik naiko duela? (*Zutitzen da biotza igurtziz*).

AMERIKANOA (*Isekaz bezela*).—Diruduna, aita, danak nai dute... Diruak itzal guziak esaltzen ditu... Badakit ori nere lepotik... Ameriketatik itzuli ezkeru, etxeko jaun aundi guziak, beren alabak eskeinka, ondotik ditut.

GANIX.—Obe uke ik ere, danen eskeintza baño baten segurantza bau. (*Irteten da*).

AMERIKANOA (*Bakarrik*).—Orra, auek dira zarren arrenkurak... Ni ezkondu? Ez... Ezkontzen danak soka lepoan dik... Nayago diat libre eta bizitzaz ondo baliatu... Gero ere, nere diruarengatik beintzat izango diat nork kontu egiña.

BORDAXURI (*Sartzen da*).—To... or al aiz? Eta... zer berri ekarri dek?

AMERIKANOA.—Ago lasai; onekin (*diruaren keñua beatzekin egiten du*) danak biltzen dituk... Korritu dizkiat Pabeko aundiki oyek danak... eta bear dan lekuan itzegin diat... eta bai, bai, sententzia segurua dek: ogei urteko kartzelatik beintzat ez dik iges egiterik.

BORDAXURI.—Dijoala betiko bistatik!

AMERIKANOA.—Aizak, gure zarra guztiz kezketan zegok mutiko zirtzil orren alde.

BORDAXURI.—Bai... zarra... eta ura bere biloba... eta gertaera guziak ez dizkik betidanik aren begiz baizik ikusi!

AMERIKANOA.—Nik beti, Plumagañearen geroa nayago diat ikusi Terexaren eskuetan, mutiko tzar orrenetan baño. Ire zartzarorako Terexa obe Plumagañean, or nunbaiteko erraña baño... Nik ere ez zekiat ezur zartuak ez ote ditudan emen azkenerako gastatu naiko.

rexa nahiago nitek bertze edozoin kanpoko, baino, eta bereziki Katxoteiko arraza hortarik baino!!!

BORDAXURI.—*Izpiritu zuzenak ez zezakek bertzela ikus... Etxeari behar dik behatu... gure zirtzil ura ez duk on etxe hunen segitzeko... Seme ez deus baino, suhi on bat hobe, ba etxearentzat, ba etxeakoentzat.*

AMERIKANOA.—*Eni ere hola iduritzen.*

BORDAXURI.—*Bertzelako ikusi bideak, bihotz ahulenak eta sentimendu nahasitik dituk... Biziak bide xuxena nahi dik... Bide xuxenik ez zukek, traban direnak tokitik kendu gabe.*

AMERIKANOA.—*Ago deskantsuan, Tribunalak gure traba kenduko dik eta itzalian ezarriko, bere pretensioneak ixilduko baizaizkok. (Zakurra ihausika entzuten da). To, badakika nor heldu zaukun?*

BORDAXURI.—*Nor? Klotilda bederen?*

AMERIKANOA.—*Ez, haren aita... Katxo bera...*

BORDAXURI.—*Zertarat heldu da hori hunat? Bere alabak gure muthiko hura bilduz geroz, errana zioat ba ez dezan gehiago zangorik sar hemen, ez berak ez eta ere Katxoteiko bertze nehork... Auzo izanik ere urrun nahi dutala horietarik bizi...*

AMERIKANOA.—*To, akoma hadi berarekin... Nik uzten ziuztet, gordetzen nuk...*

(Athea joiten dute).

BORDAXURI.—*Aintzina!*

KATXO.—*Jainkoak dautzula egun on, Bordaxuri.*

BORDAXURI *(Gain behera mintzatuz, hotz-hotza).*—*Zer da? Hainbertzetako beharrak jo*

Eta neretzat ere, Terexa nayago nitek beste kanpoko edozein baño, eta batez ere Katxoteiko kasta ortakoa baño!!!

BORDAXURI.—Buru zuzenak ez lezakek bestela ikusi... Etxeari begiratu bear zayok... gure zintzil ura ez dek ona etxe au aurrera eramateko... Seme iñozo bat baño sui on bat obe, bai etxearentzat, bai etxekoentzat.

AMERIKANOA.—Neri ere ola iduritzen.

BORDAXURI.—Bestelako ikusbideak blotz aulenak eta sentimentu nastuetatik sortuak dituk... Bizitzak bide zuzena nai dik... Bide zuzenik ez uke izango, traban diranak tokitik kendu gabe.

AMERIKANOA.—Ago lasai; tribunalak gure traba kendu ta itzalean jarriko dik; ixilduko zaizkiok orduan bere ametsak (*Zakurra zaunkaka entzuten da*). I, ba al dakik nor datorren?

BORDAXURI.—Nor? Klotilda edo?...

AMERIKANOA.—Ez, aren aita... Katxo bera...

BORDAXURI.—Zertara dator ori onera? Bere alabak gure mutiko ura bildu zuen ezkerro, esana zioat, ba, ez dezala oñik emen sartu ez berak, eta ez Katxoteiko beste iñork ere... Auzo izanik ere, oyengandik urruti bizi nai detala...

AMERIKANOA.—I, konpondu adi berarekin... Nik uzten zaituet, izkutatzera nitxeak...

(*Atea jotzen dute*).

BORDAXURI.—Aurrera!

KATXO.—Jaungoikoak egun on dizula, Bordaxuri.

BORDAXURI (*Goitik beera itzegiñaz, oso otz*). —Zer da? Bearrak ainbesteraño jo al du Ka-

du Katxo, nun ez baitzitaken egon Plumagainerat jin gabe?

KATXO.—Nehork ez daki noren beharretan izan diteken.

BORDAXURI.—Holako sarkidekin, berriz ere Plumagaineko ezkaratza, jats ukaldi baten beharretan izanen da.

KATXO (Koleran abiatua).—Kasu emazu, jatsaren lastoa enetzat balinbada, haren makila ez dadien zuretzat izan.

BORDAXURI.—Zer habila hemen, ene semea hartu ondoan, haren ontasun phartea bildu beharrez?

KATXO.—Zure semea ez dut nik bildu, ohetik kendu eta kanporat eman duzularik baizik.

KATXO.—Gizona den gizonak, auzoko kabala errebelatua ez dik etxean sartzen, baina etxe ondolik haizatzen.

KATXO.—Gizona den gizonak, beharretan den jendea du laguntzen.

BORDAXURI.—Zer nahi huen? Plumagaineko nagusiari hire miga sakatu?

KATXO.—Plumagaineak izan dezake etxeke andere makurragorik.

BORDAXURI.—Jakintzak, Plumagainean sartuko denak, izendun familiatik beharko duela.

KATXO.—Zer diozu? Katxoteikoek ez dugu la izenik?

BORDAXURI.—Zer izen duzue zuek? Hala ahantzia duk zer motetarik haizen? Pakanta seme, hainitz bordetako seme, jakintzak etxedun izaiteak emaiten duela izena. Etxeka dabilana, etxe bezenbat izenetako gizon duk. Etxedun gizona duk bakarrik izen batetako gizona.

txo, Plumagañera etorri gabe ezin egoteko?

KATXO.—Iñork ez daki zeñen bearrean izan diteken.

BORDAXURI.—Olako bixitakin, berriz ere Plumagañeko ezkaratza erratza dantzatu bearrean izango da.

KATXO (*Asarretzen asia*)—Kontu egizu, erratzaren lastoa neretzat baldin bada, aren makilla zuretzat izan ez dedin.

BORDAXURI.—Zer? nere semea artu ondoren, aren ondasun-partea bildu nayeian al aabil?

KATXO.—Zure semea ez det nik bildu, oyetik atera ta kanpora bota dezunean baizik.

BORDAXURI.—Gizona dan gizonak ez dik etxean sartzen auzoko abererik, etxe ondotik uxatzen baizik.

KATXO.—Gizona dan gizonak, bearrean dagon jendeari lagun egiten dio.

BORDAXURI.—Zer nai uen? Plumagañeko nagusiari ire biga sartu?

KATXO.—Izan dezake Plumagañeak etxeko andre aldrebesagorik.

BORDAXURI.—Jakin zak, Plumagañean sartuko danak, izena dun familiakoa izan bearko duela.

KATXO.—Zer diozu? Katxoteikoak izenik ez degula?

BORDAXURI.—Zer izen dezute zuek? Ala aztu al dek zer kastakoa aizen? Motxaleen semea, borda askotako semea, jakin zak etxaldekkoa izateak ematen duela izena. Etxez etxe dabillena etxe ainbat izenetako gizona dek. Etxaldekoko gizona, ura bakarrik dek izen bateko gizona.

KATXO.—Zer ditutzu pretenzione zoro horiek? Ala zer uste duzu? Ontasun jabe behar dela izan, gizontasun jabe izaiteko? Ez dela ontasundunetan gizon zuzenik baizik, eta ontasun gabetan gizon makurrik baizik?

BORDAXURI.—Jakintzak zer baitetarar heldua denak, bere balioaren frogak emanak dituela... Herrestan dabilanak, nun ditu frogak zerbeitetako on dela?

KATXO.—Zer ditutzu espantu horiek? Ditudun gehienak ondoriotasunez izanak ditutzu... Gu bezala pakante borda txar batean sortu izan bazine, uste duzua gu baino gehiago izanen zinela oraiko orenean? Zerbeit diren gizon gehienak bertzez dire zerbeit ez eta berez...

BORDAXURI.—Zer dauzkak? Ez deusak? Odol on baten haur izaita? Ontasun baten segitzeko gei izaita? Zertako habila beraz, gure ontasun eta semearen ondotik?

KATXO.—Ditudun ontasunak, zuk ere bertzetarik ukanak ditutzu. Bertzetarik ukanak, bertzetarat hedatzeko dira... Ez ahal duzu larretik atheratu nahiz ari den jendea baztertuko?

BORDAXURI.—Zer pretenitzen duk? Zertarat heldugo haiz?

KATXO.—Ene onez bezenbat, zure onez jina niz.

BORDAXURI.—Ene onaren gidari utziko nuk nihaur.

KATXO.—Zure semea salbatu nahiz nabila.

BORDAXURI.—Ene semeak ez likek kasurik hire ganik, ez bahintz suhi baten ondotik ibilki.

KATXO.—Zer dituzu arrokeri zoro oyek? Ala zer uste dezu? Ondasun jabe izan bear dala, gizontasun jabe izateko? Ez dala aberatsetan gizon zuzenik baizik, eta pobreetan gizon okerrik baizik?

BORDAXURI.—Jakin zak zerbait izatera eldua danak, bere balioaren progak emanak dituela... Arrastaka dabillenak, nun ditu zerbaite-rako gauza dalako progak?

KATXO.—Zer dituzu arronka oyek? Dituzun geyenak aurrekoengandik izanak dituzu... Gu bezela borda arlote txar batean sortu izan baziña, uste al dezu gu baño geyago izango ziñala, gaurko egunean? Zerbait diran gizon geyenak, besteengatik dira zerbait, ez berengatik...

BORDAXURI.—Zer? Ezeretzat al daukak odol on baten aur izatea? ondasun bat segitzeko gai izatea? Zergatik abil, beraz, gure ondasun eta semearen atzetik?

KATXO.—Zuk ere, dituzun ondasunak besteengandik izanak dituzu. Besteengandik izanak, besteengana banatzeko dira... Ez al dezu baztertuko zokotik atera nairik ari dan jendea!

BORDAXURI.—Zer nai dek? Zertara etorri aiz?

KATXO.—Nere onean ainbat, zure onean etorri naiz.

BORDAXURI.—Nere onaren gidari neroni utziko nauk.

KATXO.—Zure semea salbatu nayeon nabil.

BORDAXURI.—Nere semea ez likek iregandik kasorik izango, ez baintz sui baten atzetik ibilliko.

KATXO.—*Etzi da Pabeko jujamendu handia... Haren harat-hunata zuen eskuetan da. Badakit lekukoketa zabiltzala haren garraski kondenarazteko.*

BORDAXURI.—*Lekukoak, dituenak agertzen ditik.*

KATXO.—*Diruz, bethi lekukoak izan ditazke.*

BORDAXURI (Koleran).—*Diruz...? Diruz...? zoin dirurekin?*

KATXO.—*Diruz, ba diruz. Badakit zer diotan... Zurea ez bada, zure anea turko horren gustuz bederen.*

BORDAXURI (Ohiuz).—*Ene etxean eta ene kidekoen bertzela mintzatuko haiz. Zorritik atheratu batenganik ez baitut hemen mesprezio hartzerik.*

KATXO (Orroaz).—*Zoin gira zorritsuenak... zuek ala gu? Gure etxean ez da semerik aitari tiro bat eman dionik, ez eta ere aitarik jeloskeriaz bere semea kondenatu nahiz ari denik.*

BORDAXURI (Orroaz).—*Kanporat, hail kanporat! Zer ari haiz? Ez dukala hiaurek ohorerik galtzeko eta bertzerena galdu beharrez? Hail eta hanbat gaixto zangorik hemen sartzen baduk! Te... te... huia, huia...*

(Katxo jalitzen da... Zakur ihausiak aditzen dira... Oihuetarat heldu dire Amerikanoa eta Mayi. Hunek, ikusiz zenbait makur bide badela, berriz sukalderat itzultzen da).

AMERIKANOA.—*Zertarat jina zen?... Bazterrak nahasi beharrez?*

BORDAXURI.—*Kopetadun eta buhamien gisako behar dik egiazko, hola bertzen etxerat afruntu emaiterat joaiteko.*

KATXO.—Etzi da Pabeko juizio aundia... Andik aterako dana zuen eskuetan dago. Badakit testigu billa zabiltzatela, ura garrazki kondena-arazteko.

BORDAXURI.—Testiguak, dituenak agertzen dizkik.

KATXO.—Diruz, beti izan ditezke testiguak.

BORDAXURI (*Asarre*).—Diruz?... Diruz... Zein dirurekin?

KATXO.—Diruz, bai, diruz. Badakit zer dion... Zurea ez bada, zure anai ijitu orren sakelatik beintzat.

BORDAXURI (*Ojuz*).—Nere etxean eta nere kidekoetz bestela itzegingo dek. Zorritik sortutako batengandik ez baitet emen despreziarik artuko.

KATXO (*Orroka*).—Zein gera zorritsuenak... zuek ala gu? Gurean ez da aitari tiroa bota dion semerik, ez ta ere inbiriaz bere semea kondenatu nayeana ari dan aitarik.

BORDAXURI (*Orroka*).—Kanpora, oa kanpora! Zer? Erorrek onrarik ez dekala galtzeko ta besterena galdu nairik al abil? Oa eta aibat gaizkiago oñik berriz emen sartzen badek! Ospa... Ospa...

(*Katxo irteten da... Zakur zaunkak aditzen dira... Ojuetara Amerikanoa ta Mayi eldu dira... Au, oker-biderik badala ikusirik sukaldera itzultzen da*).

AMERIKANOA.—Zertara etorri da?... Bazterrak nastutzeraz?

BORDAXURI.—Lotsagabea eta ijktuen antzekoa izan bear dik alajaña, besteen etxera iraiñ egitera joateko.

AMERIKANOA.—Ez dakika zoin motetarik diren? Ez hiza orhoit horren aitatxo buhamietarik zela?... Saski egitetik bizi... eta kartiereko xara guziak saski gai keta larrutzen zituela?... Eta Katxo bera zer izana duk?... Eta zer duk oraino ere? Alimale biziotu bat.

BORDAXURI.—Ene semeaz dik grigna... ene semea behar dela librarazi... (Aitatxi Ganix, sukaldeko athean agertzen da... Amerikanoak keinu egiten dio bere anaiari ixil dadien, baina berantegi). Zertaz okupatua, ene semea nahi bere alaba, neska txar horrentzat?

GANIX.—Ha, ene semea,... ez hadila hola mintza. Bihotzean pena egiten dautak. Zer uste duk, hire semea galeretan sartuz ohore gehiago ukanen dukala, Katxoteiko alabarekin ezkonduz baino?

BORDAXURI (Koleran).—Aita..., zu aise mintzo zira... Zer erranen zinautan nik egun batez tiro bat eman bazinautzudan?

GANIX.—Aireari dik tiro eman, hi izarazteko, ez eta hihauri...

BORDAXURI.—Aireari? Ez, aita, ez... Nihauri eman daut tiro... Eta ez banintz aski goiz konkortu, ez nintzen gehiago mundu huntan izanen... Nik hori badakit, zuk eta bertze guziek baino hobeki... Eta gero, bere burua garbitzeko zer fama hedatu du? Ni, Katxoteiko neska txar harekin adixkide nintzala... Eta, jeloskeriaz, berak beharra nik nahiz, naizela hoin borthitza harentzat... Kartiereko gazteak ere, tuta joiterat ene kontra muntatu ditu... Horiek guziak nik zuri egin banintu, zer erranen zinuen hen?...

GANIX.—Piarres hire semea duk... Orhoitu behar duk, gaizoa, amarik gabe, hazia izana

AMERIKANOA.—Ez al dakik zein kastakoak diran? Ez al aiz oroitzen orren aitona ijitu-kumea zala?... saski egitez bizi ta erriko txarra guziak saski-gayen billa larrutzen zituela?... Eta Katxo bera zer izana dek?... Eta zer dek orain ere? Bizioz puztutako zomorrot bat.

BORDAXURI.—Nere semeaz kezketan zegok... nere semea libra-arazi bear dala... (*Aitona Ganix sukaldeko atean agertzen da... Amerikanoak keñu egiten dio bere anayari ixildu dedin, bañan beranduegi*). Zertako? Nere semea bere alaba neska txar orrentzat nai delako.

GANIX.—A, nere semea,... ez adilla ola mintza. Biotzean pena ematen didak.—Zer? ire semea kartzelan sartuta, Katxoteiko alabarekin ezkondata baño onra geyago izango dekala uste al dek?

BORDAXURI (*Asarre*).—Aita... zuk errex itzegiten dezu... Zer esango zenidan nik egun batean tiroa bota izan banizu?

GANIX.—Airera bota dik tiroa, i izutzeko eta ez eta ez i jotzeko...

BORDAXURI.—Airera? Ez, aita, ez... Neroni bota dit tiroa... Eta ez banintz aguro makurtu, ez nintzan gaur mundu ontan izango... Nik ori badakit zuk eta beste guziak bañon obeto... Eta gero, bere burua garbitzeko, zer fama zabaldu du? Ni, Katxoteiko neska txar orrekin adiskide nintzala... eta, inbiriaz, berak bear zuena nik nai, ta orregatik naizela ain gogorra berarekin... Erriko gazteak ere, turutak nere kontra jotzeko prestatu ditu... Oyek guziak nik zuri egin izan banizkizu, zer esango zenuen?

GANIX.—Piarres ire semea dek... Oroitu bear dek, gizafoa amarik gabe azia izan dala, gure

dela, gure artian, frango bortizki eta penatuki... Ez duk estonatzeko bere bidean kausitu duen lehen emaztearen goxoak beretu eta enganatu balinbadu ere.

BORDAXURI.—Aski zuen bertze bati lotzea ez eta neska horri.

GANIX.—Bihotzeko legetan ez dik adimenduak manatzen. Frango ezkontza sahetsetik musikaturik ikusi ditiat, ondotik ontsa eman baitute, elgar maite die... Biek gazte eta libro dituk. Beharrena hortan duk... Gaineratikoa, biziak heziko ditik.

BORDAXURI (Kexu).—Malerus da ba, aita, zu hola mintzatzea... Ikusten duzu zuk, neska tzar hori, hemen etxeko andere? Zeren premutasunaz, Plumagaina Piarresi heldu zaio... Ez duzuia ikusten zer den neska hori? Bethi jo arat eta jo hunat. Laneko funtsik ez, gizon guzien ondotik... Ez ditutzuia ezagutzen Katxoteikoak? Zorrak ezin pagatuz, gobernurik ez, elizako urhatsak erdizka... Ikusten nuzuia ni, Plumagain, herrian kontseilari, elizan pabillunketari, eta etxean holako errena baten jabe? Bainan, aita, ez dezaket kompreni, zuk nola esku eman dezozun hortan Piarresi.

GANIX.—Nahi dena ezin egin delarik haurrekin, seme, ahal dena egiten duk. Bide handiz ez badezakek semea ibil araz, ez duk arrazoin bat haren erreka behera igortzeko... Xendraz ibiligo badu, utzak xendraz, bide zabalerat jinen delako esperantzan... Bainan ez zalka erreka behera aurdiki, handik ez baituk sekulan jaliko...

BORDAXURI (Pikatuz koleran).—Zuk hola ikusten duzu? Nik bertzela... Zure bizia aintzinatua da, aita, eneak badituzke oraino ur-

artean, naiko modu triste ta zakarrez... Ez da arritzekoa bere bidean arkitu duen lenengo emakumearen goxotasunak bildu ta engañatu badu ere.

BORDAXURI.—Naikoa zuen beste batekin asi eta ez neska txar orrekin.

GANIX.—Biotzeko legetan ez dik buruak agintzen. Makiña bat ezkontza ikusi izan dizkiat aldamenetik burlaka ta gero ondo konpondu diranak, alkar maite izan dutenak... Biak gazte eta libre dituk. Bearrena ortan zegok... Gañerakoan bizitzak eziko dizkik.

BORDAXURI (*Asarre*).—Zoritxarrekoa da, ba, aita, zu ola mintzatzea... Ikusten dezu zuk neska txar ori, emen etxeko andre? Mayorazkuaz, Plumagaña Piarresi baidagokio... Ez al dezu ikusten zer dan neska ori? Beti jo ara eta jo onera, lanerako griñarik ez, gizon guzien ondotik... Ez al dituzu Katxoteikoak ezagutzen? Zorrak ezin pagatuz, gobernurik ez, elizako pausoak erdizka... Ikusten al nazu ni, Plumagain, errian kontzejukoa, elizan palio-eramalle, eta etxean olako erraña baten jabe? Bañan, aita, ez dezaket konprenditu, zuk nola esku ematen diozun ortan Piarresi.

GANIX.—Aurrekin nai dana ezin egin danean, al dana egiten dek. Bide zabalez ez bidezakek semea ibilli-arazi, ez daukak ura putzuan beera botatzeko arrazoirik... Bide xiorrez baldin badijoa, utzi zak bidexiorrez, bide zabalera etorriko dalako ustean... Bañan ez zak putzuan beera bota, andik ez baitek sekulan aterako...

BORDAXURI (*Asarrez morebakiz*).—Zuk ola ikusten al dezu? Nik bestela... Zure bizitza àurreratua dago, aita, nereak badu oraindik

the... Ez naiz seme gairto baten gatik hura ezin jasanez gelditzen zauzkidan urtheak bizi nahi. (Aitari zerbeit jin zaio... Amerikanoak keinu egiten dio ixil dadien). Zuzenetik dabiltzanak ez ditazke pozoinda makur dabiltzanek...

GANIX (Nekez mintzo).—Ha, semea, bertze-la uste nian Bordaxuritar arrazak segitu bear zuela. Hire semeari, hamalau urthe zitualarik, nik erakutsi nioian lur iraulen... Lehen ildoak athera zitian makur... Baina gero ikasi zian tresnaren erabiltzen, eta ildoak eremaiten zitian nik bezain xuxen... Hori ikus-eta loria batek hartu nitian... Gogotik egoiten nithuan Piarresen lehen ildo xuxenari beha... Engoitik, nioian ene buruarekin, deskantsatzen ahalko nauk... Ene semearen semea hasia duk ildoak xuxen jalitzen... Bainan orai, ene ametsa fini ikusten diat... (Nigarrez lo-tzen da) fini... ha, bizi hau gehiago fitsik ez zautak... fitsik... Hil nauzue bien artean... Seme, hil nauzue... (Erortzera doha... blek atxikitzen dute).

AMERIKANOA.—Bainan... aita... zertako egiten duzu holako odol gairtoa? Yes, atxikak... Mayi, zato hunat! (Mayi agertzen da). Aitari zerbeit jin zaio. Ba, ez du, ez dudarik gabe fitsik... Ixtant bat ezarriko dugu ohean... Hori, bilzkitzu artho hauk.

MAYI (Bakarrik).—Ha... xahar hau joaiterat heldu bada, etxe huntan ez dute aise ordainduko... Hori gizon bihotz dun bat izana da egundainotik... Hainitzak lagundu ditu eta urgulurik batere gabe... Bai familiakoak, bai eta ere auzoko zombait... Bertze xahartasunik merezi zuen segurki... Hori gizon bat izana da.

urterik... Seme gaizto batengatik, ez ditut bi-
zi nai gelditzen zaizkidan urteak ura ezin era-
manez. (*Aitari zerbait egin zayo... Amerikar
noak keñu egiten dio ixildu dedin*). Oker du
bifilenak ez dezala zuzen dabillena pozoitu.

GANIX (*Nekez itzegiñez*).—A, seme, bestela
uste nian Bordaxuritar arrazak segitu bear
zuela. Ire semeari, amalau urte zituela, nik
erakutsi niokan goldean... Lenengo golde-
askak oker atera zizkian... Bañan gero ika-
si zian tresna erabiltzen, eta nik bezin zu-
zen eramaten zizkian golde-askak... Ori iku-
si ta poztasun batek artu nindukan... Gustora
egoten nindukan Piarresen lenengo golde-as-
ka zuzenari begira... "Gaur gero, nere bu-
ruari niokan, atsedean artzen al diat... Nere
semearen semea asi dek golde-aska zuzen egi-
ten"... Bañan orain, nere ametsa akabo ikus-
ten diat... (*Negarrez asten da*) akabo... Ai, bi-
zitza au etzaidak batere ajolik... batere ez...
Il nazute bien artean... Seme, il nazute...
(*Erortzea dijoa... biak eusten diote*).

AMERIKANOA.—Bañan... aita... zergatik egi-
ten dezu olako odol gaiztoa?... Ea, eutsiyok...
Mayi, atoz onera! (*Mayi agertzen da*) Altari
zerbait egin zayo. Baña, ez du, dudarik gabe,
ezer... Piska batean oyea jarriko degu... Tira,
bildu itzazu arto auek.

MAYI (*Bakarrik*).—A!... Zarra joaten bada,
ordaña ez dute aixa jarriko etxe ontan... Ori,
biotz oneko gizona izana da betidanik... Ba-
tere arrokeririk gabe eta makiña bati lagun
egin diona, bai famillakoari, baita auzoko as-
kori ere... Beste zartzarorik merezi zuen nos-
ki... Ori, gizon bat izana da...

(Terexa iturritik sartzen da).

TEREXA.—*Yes, aitatxi nun da?*

MAYI.—*Ba ez da ez urrun... Ahulezia ttipi batek harturik, ixtant bat oherat juana dute...*

TEREXA.—*Ho... ez du segur lehen aldia...*

AMERIKANOA (Agertzen da presatuki).—*Mayi... Terexa... fite, fite, mugi zitezte... apeza, medikua...*

TEREXA.—*Zer da?*

AMERIKANOA.—*Badut beldurra azken hatsetan den...*

OIHALA

(Terexa iturritik sartzen da).

TEREXA.—Ta, aitona nun da?

MAYI.—Ba, ez da urruti, ez... Aldi-txar txiki bat izan du ta oyera eraman dute...

TEREXA.—O... ez du noski lenengo aldiz...

AMERIKANOA *(Presaka agertzen da)*.—Mayi... Terexa... azkar, azkar, mugi zaitezte... apaiza, medikua...

TEREXA.—Zer da?

AMERIKANOA.—Bildur naiz azken arnasetan ote dagon...

OYALA

BIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Kanpo bat, bizpahiru lastozko erle kofioekin;... elhur lama batzu ari ditu.

JOKOLARIAK.—Katxo eta Bordaxuri.

KATXO (Azkarki grignatua, eskun eta ezker dabila).—*Zoin hotz den... Hemen naiz, goizean goizik, Plumagaineko erle hotarat jina... Usaiaz gure etxetan, nagusi xaharra hiltzen delarik, nagusi gaztea, hil biharamunean, goizean goizik, erleri agur bat egiterat badoa... Atzo, Plumagain xaharra, bet-betan hil izan baita, ixtantean Bordaxuri, Plumagaineko nagusi berria, usai xaharreko urhatsak bethe beharrez, erle hotarat jinen da... Eta hemen nago haren beha... Bere etxean zangorik sartzerat haizu ez naizenaz gainean, hemen berderen mintzatzen ahalko dutala.*

Jakiten ahal duzue ez nizala bihotza algerarik, ez eta ere nahiz, bainan bai beharrez nizala huntaratua... Ez ene gatik, bainan preso den haren gatik. Gaizo mutikoa... Ikusi nuen herenegun... jujamendua etzi du... Ni

BIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Zelai bat, bi edo iru bat erlauntzekin;... elur-malo batzuk ari ditu.*

JOKALARIAK.—*Katxo eta Bordaxuri.*

KATXO (*Oso durduri, eskui ta ezker dabil-
la*).—Zein otz dagon... Emen naiz, goizean
goizik, Plumagañeko erle oetara etorria...
Usarioaz gure etxeetan, nagusi zarra iltzen
danean, nagusi gaztea, il da biaramonean, goi-
zean goizik, erleai agur bat egitera joan oi
da... (1). Atzo, Plumagain zarra bat batean il
zan, da aurki Bordaxuri, Plumagañeko nagusi
berria, usuario zarreko pausoak bete bearrez,
erle oetara etorriko da... Eta emen nago aren
zai... Aren etxean oñik sartzerik ez dedan
ezkero, emen beintzat, itzegingo al diot.

Ez naiz, noski, biotz alayez ontaratu, ez ta
neronek ala naita ere, ala beartuta baizik...
Neregatik ez, bañan preso dagon arengatik.
Gizajoa mutilla... Eranegun ikusi nuen... etzi

(1) "Erleai, etxeko nagusia naiz andrea illez geroz, "nagu-
sia il da" naiz "etxeko andre il da" esaten zaiote. Ori esaten
ezpada, erleak iltzen dirala uste dute..." (R. M. Azkue: "Euskal-
erriaren Yakintza", Tomo I, Madrid 1935).

garrez zagon... gaztigua igurikatzen duela... Hainitz eta etxekoak aintzinean dituela kondenatzale... Alde berriz guti... bizkitartean ez zaiola iduritzen halako krima izigarririk egin duela... nardatua haren erasi saminez, airerat tiro eman duela, aitaren ixil-arazteko bakarrik... haren hiltzeko demendren xederik gabe...

“Zoazi, daut erran, aitatziren ganat. Errozu, hura bederen urrikal dadin nitaz... Bere besoetan maiz tinkatu duen semetxiak, nigarrez galdatzen dakola lekukotasuna (bera erdi nigarrez) mementoan kadenaz dela tinkatua... Zoazi, errozu ttipian bezala dei egiten dakotala...”.

Horiek zaharrari erran nahiz, bihotza daldaran, agian buruz-buru mintzatzen ahalko nuela, atzo hurbildu nintzen Plumagainerat... Bainan, zaharraren orde, semea nuen kausitu... Gaixo zaharra... Jainkoak duela bere lorian... Eliza bidean lehen auzo gu baigira, eni da bihar ehortzetako kurutzearen karreatzea. Halere, kargua ez dautatet kendu... Izigarri izanen zen, alabainan, bertze bati kurutzea karrearaztea... Sekulan egiten ez dena... Auzoekin nahi bezein samur izana gatik... Kurutzearen karreatzea, samurgoen gainetik pasatzen da.

Horra zertan giren... Ha, Bordaxuri, gizon dorpea... Ikaran nago, zer solatsak ibilli behar ditugun ixtantean... Deliberatua naiz, eztiki arrazoinatuz, gizonki mintzatuko naizela... Ez Bordaxuriren gatik, ez, bainan gaizo preso den mutiko hartaz orhoituz... Solastatze huntan da behar bada haren biziaren harat-hunata. Hartaz pietate har-arazten balinba diot aitari, semea salbu da... Aita bere hartan tematzen

du juizioa... Negarrez zegon... kastiguaren zai zegola... Kondenatzalle asko ditula, eta etxe-koak aurretik... Alde, berriz, gutxi... bañan etzayola iduritzen alako oker izugarririk egin duenik... aren marmarazio samíñez nazkatuta airera tiroa bota duela, aita ixil-erazteko bakarrik... Ura iltzeko iñungo asmorik gabe...

“Zoaz, esan dit, aitonarengana. Esayozu, bera beintzat nitzaz erruki dedilla... Bere besoetan ainbeste aldiz artu zuen billobak, negarrez testiguanza eskatzen diola (*bera erdi negarrez*), katez lotuta dagolarik... Zoaz, esayozu txikitan bezela dei egiten diotala...”.

Oyek zarrari esan nayeana, biotza dardarka nuela, agian alkarrekin itzegingo gendualakoan, atzo joan nintzan Plumagañera... Bañan zarraren orde z semea arkitu nuen... Zarra gizajoa... Jaungoikoak duela bere glorian... Eliza bidean auzo urkoenak gu gera ta neri dagokit biyar illetako gurutzea eramatea. Alare, ez didate kargua kendu... Izugarria izango zan, izan ere, gurutzea beste bati eramana-araztea... Sekulan egiten ez dana... Auzoekin nai bezin asarre egonagatik... Gurutzea eramatea, asarreen gañetik izaten da.

Orra zertan geran... A, Bordaxuri, gizon zakarra... Ikaraz nago zer izketa erabilli bear degun aurki... Asmoa artuta nago, eztiki, arrazoibidez, gizonki mintzatuko naizela... Ez Bordaxurirengatik, ez, baizikan preso dagon mutiko gizajo artaz oroituz... Izketaldi onetan dago, bear bada, aren bizitzaren etonkizuna. Aita artaz kupitu-arazten badet, semea salbatua dago... Aita bere ortan tematzen baldin bada,

balinbada, etzi, Pabeko tribunalean, kondenuatu handi bat gehiago izanen da... Ha, gorde gaiten, huna Bordaxuri...

BORDAXURI (Kapa handi bat gainetik, emeki hurbiltzen da erletarat, eta bi aldiz, zintzoki, zeremoniaz bezela, mintzatuz).—*Erle maiteak,... Etxeko nagusi zaharra hil da... Ni naiz zuen nagusi berria...*

KATXO (Eztiki).—*Bordaxuri,...*

BORDAXURI (Harritua).—*Hen... Nor da?*

KATXO.—*Ni naiz, Bordaxuri,...*

BORDAXURI (Idorki).—*Zer da, Katxo, lehengo aski behera ez delakoan, orai ihizi basen pare sasietan abiatua?*

KATXO.—*Bordaxuri, mintza gaiten zu eta ni lañoki, gizonki...*

BORDAXURI.—*Gizon dena ez zukek bertzela mintza.*

KATXO.—*Joan den igandean, gure jaun erretorak predikatu du...*

BORDAXURI.—*To, aldi bat bederen elizan izan haizelako marka...*

KATXO.—*Pharisau eta Publikanoaren ebanjelioa aiphatu ditu... Jende apaletarik omen zen publikanoa, eta handietarik pharisaua... Eta, biak sartu omen ziren temploan...*

BORDAXURI.—*Zertarat heldu gogo duk elhe tetele horiekin?*

KATXO.—*Jakin zazu, Bordaxuri, bihotza pisu jina nizala zure ikusterat... Uste nuen gisa hortako elhek bertze estimurik izanen zutela elizako pabillunketariaren ganik...*

BORDAXURI.—*Errak zertarat heldu gogo dukan elhe horiekin... Nik, jaun erretoraren*

etzi, Pabeko tribunalean, kondenatu aundi bat geyago izango da... A, gorde gaitezen, ona Bordaxuri...

BORDAXURI (*Kapa aundi bat gañetik duela, poliki poliki erleetara urbiltzen da, bi aldiz, zintzoki, zeremoniaz bezela, itzegiñaz*). Erle maiteak,... etxeko nagusi zarra il da... ni naiz zuen nagusi berria...

KATXO (*Eztiki*).—Bordaxuri,...

BORDAXURI (*Arrituta*).—E?... Nor da?...

KATXO.—Ni naiz, Bordaxuri,...

BORDAXURI (*Zakar*).—Zer? Lenago ere Katxo naiko beera eroria ez dagolakoan, orain basa-piztien gisan sasietatik asi al da?

KATXO.—Bordaxuri, itzegin dezagun zuk eta biok poliki, gizonki...

BORDAXURI.—Gizon danak ezin dezakek bestela itzegin.

KATXO.—Joan dan igandean, gure erretore jaunak sermoyean esan du...

BORDAXURI.—Ara!... bein beñepein elizan izan alzelako señailea...

KATXO.—Fariseo ta Publikanoaren ebanjelioa aitatu du... Jende apaletakoa omen zan publikanoa, eta aundietakoa fariseua... eta biak sartu omen ziran temploan...

BORDAXURI.—Nora joan nai dek itz total oye-kin?...

KATXO.—Jakín zazu, Bordaxuri, biotz astu-
nez etorri naizela zu ikustera. Uste nuen, gisa ortako itzak estimazio oberik izango zutela elizako palio-eramalle batengandik...

BORDAXURI.—Esan zak nora eldu nai dekan itz oye-kin... Nik erretore jaunaren sermoya

predikua, aldi bat entzutea aski diat... Ez diat beretterren beharrik haren errepikatzeko.

KATXO.—Holaxet predikua bururatu du jaun erretoreak... Denak, handi ala ttipi, elgarren aurride ginela eta Jainkoaren estimuan berdin girela.

BORDAXURI.—Ez hiza oraino hola bizian?

KATXO (Kartsukiago mintzo dela).—Huna zer errango nauzun. Gure Jainkoak galdatzen daukun karitatearen izenean, Bordaxuri, zure semearen partez eta harrentzat galdezka heldu naiz, egin duen hutsa barka dezozun... Ohean duzun hilaren izenean ere, segur horrek barkatuko baizaion.

BORDAXURI (Ixilik dago ixtant bat).—Zer haiz? Sendimendukeriez ene enganatzerat jina? Jakintzak, Bordaxuri, ez dela jaz sorturikako xitoa... Sendimenduak onhartzen ditiat, sendimentukeriak ez...

KATXO.—Zure burua, Bordaxuri, beti errespetatu eta ohoratu duzu... hortakotz kartiereko gizonek beren estimua erakutsi dauzute, herriko kontseilari hautatuz... herriko artzainak ere; elizan pabillunketari ezarriz. Uste dut estimu gehiago bertzerik ez zinezakela bil, zure adimendu zorrotz eta zuzena bihotz nasai batekin uztartua dela frogatzen bazinu, zure semea libraraziz.

BORDAXURI.—Zuzen bideak dautak dutan estimua merezitu... Nun nahi, nor zer zen kasurik egin gabe, zuzen iduritu zautan hura bethi zaindu dutalakotz. Oraikoan ere semea bera duk makur bidean... Ez nuk ene biziko sailetik baztertuko, hura dela kasu. Izaitekotz ere, harentzat oraino bortitzago izanen nuk, deneri erakusteko Bordaxuri ez dela gizon al-

bein entzutea naikoa diat... Ez diat sakristua-
ren bearrik ura errepikatzeko.

KATXO.—Olaxe bukatu du sermoya erretore
jaunak... Denak, naiz aundi naiz txiki, alka-
rren anayak gñala eta Jaungoikoaren aurrean
berdin gerala.

BORDAXURI.—Ez al aiz oraindik ola, bizitzan?

KATXO (*Gartsuago mintzatzen dala*).—Orra
zer esan bear nizun: gure Jaungoikoak eska-
tzen digun karidadearen izenean, Bordaxuri,
zure semearen partez eta arentzat, eskean
etorri naiz, egin duen utsa barka dezayozun...
oyean dezun illaren izenean beintzat... arek,
noski, barkatuko baitzion...

BORDAXURI (*Ixilik dago une bat*).—Zer? Sen-
timentukeriz ni engañatzera etorri al aiz? Ja-
kin zak, Bordaxuri ez dala igaz sortutako txi-
toa... Sentimentuak onartzen dizkiat, senti-
mentukeriak ez...

KATXO.—Zure burua, Bordaxuri, beti erres-
petatu ta onratu dezu... Orregatik erriko gi-
zonak beren estimazioa erakutsi dizute, erri-
ko kontzejurako autatuaz... Erriko Artzayak
ere, elizan palio-eramalle jarri. Uste det, esti-
mazio geyago ezin zenezakeala beste inundik
bildu, zure semea libratu-araziz baizik, eta
zure buru zorrotz eta zuzena blotz zabal ba-
tekin uztartua dagola progatuko bazenu bai-
zik.

BORDAXURI.—Dedan estimazioa zuzenbideak
merezi izan zidak... Nun nai, nor edo zer zan
kasorik egin gabe, zuzen iduritu zaidana be-
ti zaitu detalako. Oraingoan, nere semea
bera zegok okerbidean... Ez nauk nere biziko
bidetik baztertuko, ura dalako. Izateko ere,
arekin are gogorragoa izango nauk, danai
erakusteko, Bordaxuri ez dala gizon alder-

derdikaria bainan bethi berdin fermua... Ez nuk ni haizek norat nahi erabiltzen dituzten luma hetarik...

KATXO.—Ez zirea beldur, zure semearen galtzeak zure omena ahul dezan?

BORDAXURI.—Ene omenaren jabe ni nuk, ez eta ene semea.

KATXO.—Gure omena, bertzetarik heldu zauku ez eta guhaurretarik... Bertzeak dira gure omenaren jabe...

BORDAXURI.—Gure omenak, abiadura gure baithan dik... Ez die bertzek gure omena airtetik egiten, bainan gure baitarik... Gizonaren pötreta duk haren omena...

KATXO (Kartsuki).—O, Bordaxuri, othoi, guri zite... Zu eta ni, aitak baigira, frangotan, gure haur ttipiak nigarrez besoetan, entseatu gira heien kontsolatzerat. Orai, nigarrez ari den haurra, handitua duzu. Horren oraiko nigarrak, haurrekoak baino pisuago dire, eta errespetua zor zaiote... Ttipian haurrari hedatu besoak, ez ahal dazkotzu orain hetsiko...

BORDAXURI (Idor).—Aski, Katxo,... Debalde-tan dituk hire fugnakeriak ene biltzeko... Ohartua nuk aspaldian, zuen mota urhezko ahoen jabe zireztela... Ez nuk estonatzen holarako ahoekin hire alabak ene semea bildu badu ere... Ez zakala phentsa, aita hik bilduko dukala... Hire elhe legunak atxizkik emaztentzat. Berdin heietan irabaziak dituk hire biziko partidarik ederrenak...

KATXO.—Ene biziko harat-hunatetan ez duzu sudurraren sartzetik... Hortaz lotzen bazira, banuke nik ere zutaz zer konda...

dikaria, beti berdin ta zuzena baizik... Ez nauk ni aizeak noranai eramaten duen luma bat...

KATXO.—Ez al zera bildur, zure semea galzteak zure omena ere aulduko duanik?

BORDAXURI.—Nere omenaren jabe ni nauk, ez nere semea.

KATXO.—Gure omena bestengandik eldu zaigu, ez gerongandik... Besteak dira gure omenaren jabe...

BORDAXURI.—Gure omenak asiera gure go-goan dik... Ez dute besteak gure omena airetik egiten, gure gogotik baizik... Gizonaren ispillua bere omena dek...

KATXO (*Gartsuki*).—O, Bordaxuri, bigundu zaitez mesedez... Zu eta biok gurasoak gera ta, frankotan, gure aur txikiak negarrez ari zirala, sayatu izan gera besoetan artu ta ayek kontsolatzen. Orain negarrez ari dan aurra, aunditua dezu. Orren oraingo negarrak txikita-koak baño astunagoak dira, eta errespetua zor zaie... Txikitan aurrari zabalduko be-soak, ez al dizkiozu orain itxiko!...

BORDAXURI (*Zakar*).—Naikoa da, Katxo,... Alperrikakoak dituk ire ni biltzeko txotxolokeriak... Aspaldian oartuta nago, zuen kasta-koak urrezko aoaren jabe zeratela... Ez nauk arritzen, olako aoakin ire alabak nere semea bildu izatea... Ez zakala pentsa, aita ik bilduko dekanik... Ire itz legunak gorde itzak emakumeentzat. Bearbada ayen artean irabaziak dituk ire biziko partidarik ederrenak...

KATXO.—Nere biziko gauzetan ez dezu sugurra zer sartu... Ortan asten bazera, izango nuke nik ere zutzaz zer kontatua...

BORDAXURI.—Hire erranak ala jazko haizea, berdin dituk enetzat... Axala kilikatzen zautae, bainan ez dituk mamian sartzen...

KATXO.—Ontsa urgulu handiz daukazu zure burua, eta Katxoteikoak ontsa zangopean lehertu nahiz zaude. Ahantzia duzu naski, ez hain aspaldi oraino, ene alabari egiten ziniozkan adio pollit heiek?

BORDAXURI (Koleran).—Zer derasak? Ni hire alabaren ondotik ibili naizela?

KATXO (Errabiatuki).—Ba, hori eta bera. Zu, ba, zu... Plumagaineko apostolu handia, zure burua norbaitentzat daukazuna, zu ibili zira ene alabaren ondotik...

BORDAXURI (Oihuz).—Fuera hemendik, fuera, lehen bai lehen... Zorritik atheraia, buhami asto zikina...

KATXO (Kanpotik orroaz).—Bai, zuk, bai... Denek badakite berdin zuk nahi zinuena zure semeak bildu duen andre geia. Eta hortako zira jazar zure semeari. Bertze ibilpide eta elhe guziak, estakuru txar batzu bertzerik ez dituzu, zure jeloskeriaren eta ene alabak errefusatzea egin dautzun afruntuaren gordezeko. (Urruntzen da).

BORDAXURI.—Nun da zakurra?... te, te, te, ustel zikina! Xantza duk ez baita ondo huntan... eta hanbat gaixto zangorik ere sartzen baduk gehiago ene eremuetan...

KATXO (Urrunetik).—Aski dautazu beraz, bihar kurutzeta kentzea, ez badut zure ontasunetan zangorik sarthu behar...

BORDAXURI (Betbetan gogoetatua, bakarrik).—Hala duk... Arrazoina dik... hum... (Finki) Zer uste duk? Bordaxuri aski gizon ttipia dela gauza sainduen profanatzeko? Bego kuru

BORDAXURI.—Ire esanak ala igazko aizea, berdin dituk neretzat... Axala kilikatzen ditek, bañan ez dituk mamian sartzen...

KATXO.—Oso arrokeriz puztuta daukazu zure burua, eta Katxoteikoak ankapean oso lertu nayeaz zabilta. Aztuta daukazu noski, ez ain aspaldi oraindik, nere alabari egiten zeniozkan ariyo polit ayek?

BORDAXURI (*Amorruaz*).—Zer diok? Ni ire alabaren atzetik ibilli naizela?

KATXO (*Errabiaz*).—Bai, ori ta bera. Zu, bai, zu... Plumagañeko apostolu aundia, zure burua prestutzat daukazuna, zu ibilli zera nere alabaren atzetik...

BORDAXURI (*Ojuz*).—Alde emendik, alde lenbailen!... Zorritik sortua, ijitu asto zikiña...

KATXO (*Kanpotik orruaz*).—Bai, zuk, bai... Danak badakite zuk nai zenuela zure semeak bildu duen andregaya. Eta orregatik asarretu zera zure semearekin. Gañerako ibillera eta itz guziak ez dituzu aitzeki txar batzuk besterik, zure inbiria ta nere alabak uko egiteaz egin dizun iraiña gordetzeko. (*Urrutiratzen da*).

BORDAXURI.—Nun da zakurra?... To, to... axa, axa... ustel zikiña! Suerte ona dek inguru ontan ez egona... eta ainbat gaizkiago berriro oñik sartzen badek nerean dan lurrean...

KATXO (*Urrutitik*).—Naikoa dezu, beraz, biyar gurutzea kentzea, zure barrutian oñik santu bear ez badet...

BORDAXURI (*Bat-batean gogoratuta, bakarrik*).—Ala dek... Arrazoi dik... um!... (*Modu fiñez*) Zer uste dek? Bordaxuri ain gizon txikia dala, gauza santuak zikintzeko? Bego gu-

tzea bere bidean... Nor nahi izan diton, Katxoteikoak dire Plumagaineko lehen arzoak eta beraz zuzenez kurutzeketariak. Ez da Plumagain, lege zaharreri bihurtuko den gizon bat... Nik ene eginbidea betheko dut... Bete beraz Katxok berea...

Zer gizonaren kopeta... Holako gizonari, zakurra gibeletik eta makila bizkarretik behera...

Beharrik ene hortan tinki egon bainiz... Urrikarri dut holako biligarro baten menean erortzen den gizona. Hastapenean liliak eta undarrean ziliportak...

Gizon kakola... Goazen bethi beretik... Gurre Jainkoak ere ez du bertzerik egiten... Behar balu gizonen kaprizak guzieren plegatu, ez litake Jainko, eta mundua laster errekan litake.

Jende nahasiek kaprizak egiten dituzte, eta, saltsa aski mintzen zaiotelarik, jende zuzenatarat joaiten dire, othoizka ager diton heien kaprizen tapagailu...

Hola gertatzen zaio ene semeari ere... Kaprizan, bereaz bertzerik ez entzun nahiz, aski behera erori delarik, orai, noizbeit, oihuka, bere zilotik jali dezagun.

Bere kaprizak eginez baizik ez baitzuen bizi nahi, orai berak peka eta paga ditzala kaprizak horien ondorioak.

(Berriz ere zeremoniak erleak agurtatzen ditu).

Erle maiteak,... Etxeko nagusi zaharra hil da... Ni naiz zuen nagusi berria...

OIHALA

rutzea bere bidean... Nornai izanda ere, Katxoteikoak dira Plumagañeko auzo urkoenak eta, beraz, gurutze-eremalle izatea dagokie. Ez da Plumagain lege zarririk ukatuko duen gizona... Nik nere eginbidea beteko det... Bete dezala, ba, Katxok ere berea...

Ori gizonaren kopeta!... Olako gizonak zakurra ipurditik eta makilla bizkarretik beera merezi dik...

Zorionez, nere ontan sendo egondu naiz... Errukarri det olako birigarro baten mendean erortzen dan gizona. Asieran loreak eta azkenean lokatz-zipriztiñak...

Gizon alua!... Goazen beti bide beretik... Gure Jaungoikoak ere ez du besterik egiten... Gizonen txorakeri guziak aintzat artu bear balitu, ez litzake Jaungoiko, eta mundua ere laster legoke lur jota.

Kristau txoroak txorakeriak egiten dituzte, eta salsa geitxo mindu zayenean, kristau zuzenetara joaten dira, arren da mesedez beren txorakerien estalgarri agertu ditezen eskean...

Ola gertatzen zayo nere semeari ere... Arin-keriz, berea besterik entzun nai ezean naiko beera erori danean, orain, noizbait, ojuka bere zuloatik atera dezagun.

Bere txorakeriak egiñez baizik bizi nai ez bazuen, larrutik paga ditzala orain txorakeri oyen ondoreak.

(Berriz ere zeremoniaz erleak agurtzen dituztu).

Erle maiteak,... Etxeko nagusi zarra il da... Ni naiz zuen nagusi berria...

OYALA

HIRUGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Gorputz hil pausa toki bat; azita ur benedikatuarekin.

JOKALARIAK.—Beronika, Luixa, Mayi, Bordaxuri, Katxo, Terexa, Klotilda.

BERONIKA (Luixarekin ari da barnearen aphaiztzen. Kadera baten gainetik, erramu hosto batzu oyhalari lotzen ditu... Luixak eskilimak pasatzen diozka, bainan jostatuz eskilima gibeletik xixtatzen du).—*Ai, bakea eman gero, Luixa. Ixtantean enterramenduko jendeak hemen izanen ditu eta ez dun gero jostetan artzeko tenorea...*

LUIXA (Erresposturik eman gabe, ixtuz, dantza aire bat emaiten du, zango batez ponduak markatuz, berriz ere Beronika xixtatzen du).

BERONIKA (Koleran).—*Ai, debru ergela, hi... Hæizen bezalako ergela... Ama! Luixak ez nu lanean artzerat utzi nahi...*

MAYI (Agertzen da koleran).—*Berriz ere ka-*

IRUGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Gorputza egondako tokia. Ontzia ur bedeinkatuarekin.*

JOKALARIAK.—*Beronika, Luixa, Mayi, Bordaxuri, Katxo, Tereza, Klotilda.*

BERONIKA (*Luixarekin gela antolatzen ari da. Exer-leku baten gañetik erramu-osto batzuk oyalari lotzen dizkio... Luixak orratzak pasatzen diozka, bañan jostatuz orratzaz atzetik xixtatzen du*).—Ai, pakea eman zangero, Luixa. Proguko jendeak aurki emen izango ditun eta ez den gero jostatzen aritzeko garaya...

LUIXA (*Erantzunik eman gabe, tristuz dantzara aire bat jotzen du, oin batez puntuak markatuz; berriz ere Beronika xixtatzen du*).

BERONIKA (*Asarre*).—Ai, deabru txorrea, i... Aizen bezelako txorrea... Ama! Luixak ez nau lanean uzten...

MAYI (*Asarre agertzen da*).—Berriz ere se

lapitan... Nehork ez din erranen zuek bi ahizpak zireztela. Bat bertzea gabe ez duzue nihun onik eta elgarretaratu eta bethi kalapita...

LUIXA.—Ez zitela kexa, ama,...

MAYI (Bethi koleran).—Hala dun eta... Emozue horri dantza, dena dantza... Hil tokian bederen ago ixtant bat geldirik...

LUIXA (Maltzurki).—Ekatzu potta, amatto, eta ezti zaite...

MAYI.—Erna fite... Ixtantian ahokuko jendeak hemen ditun... Bordaxuriri errana zionat: Utz-azu etxea ene gain, eta lan guziak ere ba. Jinen niz ene bi alabekin, eta tenoreko denak izanen dira.

LUIXA.—Baietz ba, ama, baietz.

MAYI.—Mugi hadi beraz hortik, mahainaren erdia oraino emaiteko duzue...

LUIXA.—Baietz, ama, baietz... Zaude gostuan, denak eginen ditugu.

(Mayi jalitzen da).

BERONIKA.—Nagon hean Katxo eta haren alaba Klotilda hemen geldituko direnetz bazkariteko...

LUIXA.—Zertako ez? Kurutzeketari eta lehen auzo kapaduna bethi gomit ditun.

BERONIKA.—Ba, bainan hemengo gertakarien ondotik...

LUIXA.—Bo, uste balinbadun apetitua hortakotz galdu dutela...

BERONIKA (Kexu).—Hi, arrunt xoroa hiz, hiretzat den gertakari larrienak phitsik ez ditun!

LUIXA (Trufaz).—Zendako ez dun nahi Katxo eta Klotilda ez ditin jin gure bazkari onaren jastatzerat?

sloan... Inork ez din esango zuek aizpak zera-
ratenik. Bat bestea gabe ez dezute inun onik,
eta alkartu ta beti sesioan...

LUIXA.—Ez zaitezela asarretu, ama,...

MAYI (*Asarre oraindik ere*).—Ala den eta...
Emayozute oni dantza, dana dantza... Il to-
kian beintzat ago apur batean geldirik...

LUIXA (*Maltzurki*).—Ekatzu muxu bat, ama-
txo, eta ezti zaitez...

MAYI.—Mugi adi aguro... Aurki proguko
jendeak emen ditun... Bordaxuriri esana zio-
nat: "Utzi zazu etxea nere kontu, eta lan gu-
ziak ere bai. Etorriko naiz ni nere bi alabakin
eta gauza danak garaiz prest izango dira".

LUIXA.—Bayetz, ba, ama, bayetz.

MAYI. Mugi adi, beraz, ortik; mayaren er-
dia oraindik jartzeko dezute...

LUIXA.—Bayetz, ama bayetz... Zaude lasai,
danak egingo ditugu.

(*Mayi irteten da*).

BERONIKA.—Pentsatzen ari nindunan ia Ka-
txo eta aren alaba Klotilda emen geldituko ote
diran bazkaltzen.

LUIXA.—Zergatik ez? Gurutze-eramallea ta
auzo kapadun urkoena, beti izaten ditun baz-
kaldar.

BERONIKA.—Bai, bañan emengo gertakizu-
nen ondoren...

LUIXA.—Bo, uste baldin baden apetitua orre-
gatik galdua izango dutela...

BERONIKA (*Asarre*).—I zearo txoroxa aiz; ire-
tzat gertaerarik larrienak ez ditun ezer!

LUIXA (*Burlaz*).—Zergatik ez den nai Katxo
ta Klotilda gure bazkari ona jatera etortzerik?

BERONIKA.—Zertako? Zeren eta bihar Katxo eta Plumagain elgarren kontra agértuko baitira auzitegian...

LUIXA.—Goiz huntan hasteko hemen zintunan Katxoteiko aita-alabak kutxaren zeinatzen...

BERONIKA.—Hil zeinatzerat joaitea eta hil bazkarirat joaitea biga ditun gero...

MAYI (Presan sartzen da).—Mugi, mugi... ahokua athean dun... Utz hemen denak diren bezala... Fite mahainaren emaiterat... Zuen xoxokeriekin azkenean beranta bildu diun.

(Laster lasterka barne undarra garbitzen dute eta oro jalitzen dira... Ixil eta serio, lau bortz gizon kapadun sartzen dira; bakoetak hil tokia zeinatzen du... Ezagut ditazke Katxo, Amerikanoa eta Bordaxuri... Bildutasunean ixtant bat egonik, oro jalitzen dira sukaldeko atetik, salbu Katxo... Hau kanpoko ateari buruz abiatzen da...)

BORDAXURI (Hotz-hotza, Katxori buruz).—Bazkaltiarren tokia bertze alderdian duk.

KATXO (Hotzki).—Gomitatuak direnak han izanen ahal dire...

BORDAXURI.—Kurutzeketaria bethi komit duk usaiatz.

KATXO.—Usaiatz bakarrrik den gomituak estimu guti.

BORDAXURI.—Hiaurek ikus zer zaukan, nik ene eginbidea bethea izanen diat.

KATXO.—Atzo erabiliek, eni ere egungo eginbidea erakusten dautate.

BORDAXURI.—Uste baduk ez jinez afruntu bat emaiten dautakala, hire burua engantzen duk...

BERONIKA.—Zergatik? Biyar Katxo ta Plu-
magain auzitegian alkarren kontra agertuko
diralako.

LUIXA.—Goiz ontan estrañakoak itunan
emen Katxoteiko aita-alabak il-kutxari ur be-
deinkatua ematen...

BERONIKA.—Illari ur bedeinkatua ematea
eta il-bazkarira joatea bi gauza ditun gero...

MAYI (*Presaka sartzen dala*).—Mugi, mugi...
progua emen den... Utzi emen denak dauden
bezela... Azkar maya jartzera... Zuen txora-
keriekin azkenean berandu.

(*Laster-lasterka barrena garbitu ta danak
irteten dira... Ixil eta serio, kapaz jantzitako
lau edo bost bat gizon sartzen dira; bakoitzak
il-tokiari ur bedeinkatua ematen dio... Eza-
gutu ditezke Katxo, Amerikanoa ta Bordaxu-
ri... Une bat bilduta egon da sukaldeko atetik
irteten dira Katxo ez beste danak... Au kan-
poko ate aldera abiatzen da...*).

BORDAXURI (*Otz-otz, Katxori*).—Bazkaldarren
tokia beste alderdian zegok.

KATXO (*Otz*).—Deituak izan diranak an
izango dira...

BORDAXURI.—Gurutze-eramallea beti dek dei-
tua usarioz.

KATXO.—Usarioz bakarrik deitua danak es-
timazio gutxi.

BORDAXURI.—Erorrek ikusi zer bear dekan,
nik nere eginbidea betea izango diat.

KATXO.—Atzo erabilliak, neri ere gaurko
eginbidea erakusten didate.

BORDAXURI.—Uste badek ez etorriz iraiñ
egiten didakala, ire burua engañatzen dek...

KATXO.—*Berdin bazauzu ez jitea, zendako hola miatzen nuzu?*

BORDAXURI.—*Afruntua hiretzat izanen duk... Hil etxe batean, ehortz egunean, aski gizon ttipia izan hizala, ziminokerian artzeko.*

KATXO.—*Gero ageriko jendek nola jujatuko gituzten.*

BORDAXURI.—*Ez zakala pentsa, Katxo, hire talastek zikinduko dutela ene ohorea.*

KATXO.—*Arrazoina duzu... Ez dautzut nik ohorerik galduko, ez baituzu gehiago galtze-korik.*

BORDAXURI.—*Bertzen xakurraz jelos denak, hura zauritua zio... Ene ohoreaz jelos haiz eta hura kolpatua diok.*

KATXO.—*Dukezun ondarrari enterramendua, biharko tribunalak obratuko du.*

(Ixiltzen dira... Gizonen molde berean, sartzan dire emazte kapadunak. Heietan, Terexa eta Klotilda. Bordaxuri jalitzen da sukaldeko atetik, Katxo, xut, ixilik bere xokoan dago).

TEREXA.—(Denak zeinatu ondoan).—*Zatozte gero denak bazkariterat.*

KATXO.—*Klotilda, gu goazen etxerat... (Bertzeak jalitzen dira).*

TEREXA (Bizi-bizia).—*Egoiten ahal zirezte ba zuek ere bertzeak bezala...*

KATXO.—*Ez zuen heinekoak izanan gatik, gure hazteko doia bada gure etxean.*

TEREXA. (Kexu).—*Zer zirezte, pozoindatuko ziuztegula beldur?*

KATXO.—*Etxekoen hilarazteko kapable denak, bietan hilaraziko ditu kanpokoak.*

KATXO.—Ez etortzea berdin bazaizu, zergatik ari zera ola?

BORDAXURI.—Iraiña iretzat izango dek... Il-etxe batean illetako egunean naiko gizon txikia izan aizela, tximukeritan aritzeko.

KATXO.—Gero ageriko da jendeak nola juzgatuko gaitun.

BORDAXURI.—Ez zakala pentsa, Katxo, ire zipritiñak nere onra zikinduko dutenik.

KATXO.—Arrazoi dezu... Ez dizut nik onrarik galduko, ez baitezuz zer galdurik.

BORDAXURI.—Besteren zakurraz asarre dagona, arek ozka eginda zegok... Nere onraz inbiritan ago ta, inbiriak ozkatua ago.

KATXO.—Daukazun onra-kondarrari biyarko tribunalak lur emango dio.

(Ixiltzen dira... Gizonen gisa berean, kapaz jantzitako emakume batzuk sartzen dira. Ayen artean, Terexa ta Klotilda. Bordaxuri sukaldeko atetik irteten da. Katxo, zutik eta ixilik, bere txokoan dago).

TEREXA *(Danak ur bedeinkatua eman ondoren)*.—Zatozte gero danak bazkaltzera.

KATXO.—Klotilda, gu goazen etxera... *(Besteak irteten dira)*.

TEREXA *(Bizi-bizi)*.—Gelditzen al zerate, ba, zuek ere besteak bezela...

KATXO.—Ez, zuen mallakoak ez izanarren, gu mantentzeko lain bada gure etxean.

TEREXA *(Asarre)*.—Zer? pozoituko zaituegulako bildur al zerate?

KATXO.—Etxekoak illerazteko gauza danak errexago illeraziko ditu kanpokoak.

TEREXA.—Nork galdu du Piarres? Katxotetikorik izan ez balitz, etzen sekulan hortaratuko. Nork du gehienik sofritzen haren penaz? Zuek ala nik? Ene anaia da gero!

KLOTILDA (Suharki).—O, Terexa hola balinbada, zuk ere Piarres maite balinbaduzu, lagun nezazu haren libratzen... eman zaite ene alde!

TEREXA (Hunkitua).—Aita, aita bilazu.

KLOTILDA (Erdi nigarrez, eskuak Terexari hartuz).—Harek eta nik elgarren berri bada-kigu. Ho, libra zazue Piarres, ez dauzuet bertze deus galdatzen... libra zazue Piarres, utz gaitzazue ezkontzerat...

BORDAXURI (Sartzen da).—Zer gira? Sintsakerietako aldian?

KLOTILDA (Suharki).—O, Bordaxuri,... Piarresez mintzo ginen... Oraino barne huntan hilaren gorphutza sendi da, hil horrek maite zuen Piarres... Horren izenean galdatzen dauzkitzut Piarresen librantza eta eskua...

BORDAXURI (Mesprexatuz).—Presondegia ez da goxo ez eta eder... Bainan Bordaxurik nahiago du haren odola han ikusi ezinez eta ixritlean.

KLOTILDA (Bere samindura penatuki gordez).—Ez dakit ene odola ixriletik den, sortzez ukan bezalakoa dut.

BORDAXURI.—Ba, bordan sortutik, ez etxean sortutik!

KLOTILDA.—Ez dut nik hautatu sor-tokia!

BORDAXURI.—Ontasunetik ez den odola, on gutiko odola...

KLOTILDA.—Odol onetik izan ditake, ontasun ez izanik ere.

TEREXA.—Nork galdu du Piarres? Katxotei-
korik izan ez balitz, etzan sekulan ortaratu-
ko. Nork du geyenik sufritzen aren penaz?
Zuek ala nik? Nere anaya da gero!

KLOTILDA (*Bero*).—O, Terexa, ala baldin ba-
da, zuk ere Piarres maite baldin badezu, la-
gundu nazazu ura libratzen... jarri zaitez ne-
re alde!

TEREXA (*Kupituta*).—Aita, aita bildu zazu.

KLOTILDA (*Erdi negarrez Terexari eskuak
artuaz*).—Arek eta biok badakigu alkarren be-
rri. O, libra zazute Piarres, ez dizuet beste
ezer eskatzen... libra zazute Piarres, utzi gai-
tzazute ezkontzen...

BORDAXURI (*Sartzen da*).—Zer? Komeria
egiten asi al gera orain?

KLOTILDA (*Bero*).—O, Bordaxuri!... Piarre-
sez ari giñan... Oraindik barren ontan illa-
ren gorputza senti da, il orrek maite zuen
Piarres... Orren izenean Piarresen libertadea
ta eskua eskatzen dizkizut...

BORDAXURI (*Despreziatuz*).—Presondegia ez
da goxo, ez ta eder ere... Bañan Bordaxurik
nayago du bere odola an ikusi, lokatzean ba-
ño.

KLOTILDA (*Bere samina nekez gorderik*).—
Ez dakit nere odola lokatzetik ote dan, sor-
tzez izan bezelakoa det.

BORDAXURI.—Bai, bordan sortua, ez etxal-
dean sortua!

KLOTILDA.—Ez det nik sor-lekua autatu!

BORDAXURI.—Ondasunetik ez dan odola, on
gutxiko odola...

KLOTILDA.—Odol onekoa izan diteke, onda-
sunik ez izanik ere.

BORDAXURI.—Zure odolaren jabe ziren, gizon multxo batek frogatua dute.

KLOTILDA (Kontzetik jalitzen da).—Zer duzu zuk hola ene mespresatzeko? Ez, ez baituzu lehen aldia gisa hortan mintzo zirela nitaz... Ez nizala etxeko alaba eta uste duzua ez nitakela onhesta izan? Zer zirezte zihaurek? Ezagutzen ziuztet, ezagutzen... zuek, jende o-ho-ra-ga-riak. Kanpo itxura eta grimasak eder ditutzue... Bainan barnez zer balio duzue?... Maiz, gu bezenbat ere ez... Badakit ari izana zirela kondan, ni neska tzar bat naizela... Bainan nola tzartua eta galdua naiz, galdua balinba naiz? Galda zazute familia o-ho-ra-garrietako semetze batzueri, zer proposamenduak egiten dauzaten?

BORDAXURI.—Bego zure lohia zure baitan!

KLOTILDA (Gero eta bortitzago).—Ba, zuek kanpoz, baditutzue holako molde eder legun batzu, bainan zuen tapagia distirant izana gatik, zuen barneko usteldura gurea bezenbat bada. Zu, ba, Bordaxuri eta zure iduriak ezagutzen zaituztet. (Zuen abusagailu ibili nauzue, mila elhe zuriz ase nauzue, gordeka eta buruz-buru). Komplimenduz hantu nauzue, eta orai jin baitzaut zuetarik batekin ene amentsaren obratzeko parada, orai ukatzen eta mespresatzen nauzue... Buruz-buru aipatuen, orai denen aintzinean agertzeko ahalge zirezte. Zuhaurek galdu nauzu, galdua balin banaiz. Beha nezazu: naizen bezala, zuen obra naiz... Ni mespresatuz, zuen burua eta zuen obra duzue menpresatzen.

(Betbetan sartzen da Mayi. Denak ixiltzen dira).

MAYI (Bordaxuriri).—Nahi duzuelarik jarri, bazkaria prest presta da.

BORDAXURI.—Zure odolaren jabe zeran ala ez, gizon-sail batek probatu du.

KLOTILDA (*Bere onetik ateratzen da*).—Zer dezu zuk, ni ola despreziazteko? Ez, ez bai-tezu lenengo aldia gisa ortan nitzaz mintza zerala... Ez naizela etxaldeko alaba eta uste al dezu ez naitekela izen onekoa izan? Zerok zer zerate ba? Ezagutzen zaituet, ezagutzen... zuek, jende on-ra-ga-rriak. Kanpoko itxura eta kolorea ederrak dituzute... Bañan barrenez zer balio dezute?... Maiz, gu ainbat ez... Badakit gaizki esaka ari izan zerala, ni neska txar bat naizela... Bañan nola txartu eta galdu naiz, galdu baldin banaiz ere? Galde zayezute familia on-rra-garrietako seme batzuei nolako eskeñiak egin dizkidaten...

BORDAXURI.—Bego zure loya zuregan!

KLOTILDA (*Gero eta gogorrago*).—Bai, zuek kanpotik badituzute olako modu eder legun batzuek, bañan zuen estalkia dizdizaria izanagatik, zuen barrengo ustela gurea aña bada. Zu, bai, Bordaxuri, eta zure antzekoak, ezagutzen zaituet. (Zuen abusagarri ibilli nazute, milla itz zuriz ase nazute, izkutuan eta buruz-buru). Kunplimentuz puztu nazute, eta orain, zuetako batekin nere ametsa egiztatze-ko aukera etorri zaidanean, orain ukatzen eta despreziazten nazute... Alkarrekin aitatuak, orain danen aurrean agertzeko bildurrak zaudete. Zerorrek galdu nazu, galdu baldin banaiz. Ikusi nazazu: naizen bezelakoa, zuen obra naiz... Ni despreziaztu, zuen burua eta zuen obra despreziazten dezute.

(*Bat batean Mayi sartzen da. Danak ixiltzen dira*).

MAYI (*Bordaxuriri*).—Nai dezutenean exeri, bazkaria prest prest dago.

BORDAXURI.—*Ontsa da, heldu gira.*

MAYI.—*Ha, gaixo zaharra,... ez diot onhets ez dudala gehiago ikusiko. Zer hutsa hura hemen gabe...*

BORDAXURI.—*Ba... huts handia...*

KLOTILDA.—*Ba, eta ez bakarrik hemengoentzat... bertze hainitzentzat ere...*

(Denak ixiltzen dira, nehork ez jakin zer erran).

BORDAXURI.—*Bon, heldu gira beraz mahai-nerat.*

MAYI.—*Ba, prest presta da... (Jalitzen da).*

BORDAXURI.—*Zuek orai eginen duzue nahi duzuen. Haatik hemen egoitekotz, hil etxe hau errespetatuko duzue. (Klotildari) Eta zuk, enganatzaileak ukan badituzu, akusa zaitzu hek eta zure burua, eta... guri bakea emazu...*

KLOTILDA.—*Ene enganatzailetarik bat: zu!*

BORDAXURI (Oldartua).—*He?...*

KLOTILDA.—*Zu, ba, zu, Bordaxuri, pabillun-
ketari, herriko kontseilari, aita familiako oho-
ragarria.*

BORDAXURI (Erhotua).—*Zer zabilta hemen, paso bat bildu beharrez? Zoazi hemendik, kanporat eta zoazte hemendik begien bixtatik, Katxoteiko buhamiak!*

KLOTILDA (Bere aitaren ganat ihes egiten du... Katxok iduri du kolpeka artzeko prest dela).—*Ez naiz hemendik jaliko errango dudana erran gabe... Ala ahantzia duzu igande arrats hura, ene biderat jali baitzinen?...*

BORDAXURI (Dudan egonik, paso bat emanen othe dion Klotildari).—*Zato hunat, Terexa, barne zikintzerat jinak balinbadire, zikin de-*

BORDAXURI.—Ondo da, bagoaz.

MAYI.—Ai, aiton gizajoa... ezin pentsatu det geyago ikusiko ez dedanik. Zer utsa emen, ura gabe...

BORDAXURI.—Bai... uts aundia...

KLOTILDA.—Bai, eta ez emengoentzat bakarririk... beste askorentzat ere bai...

(*Danak ixiltzen dira, inork ez daki zer esan*).

BORDAXURI.—Tira ba, bagoaz beraz mayera.

MAYI.—Bai, prest prest dago... (*Irteten da*)

BORDAXURI.—Zuek orain nai dezutena egingo dezute. Orratik, emen gelditzekotan, il-etxea errespetatuko dezute. (*Klotildari*) Eta zuk, engañatzalleak izan badituzu, akusa itzazu ayek eta zure burua, eta... guri pakea eman...

KLOTILDA.—Nere engañatzalletako bat: zu!

BORDAXURI (*Amorruz*).—E?...

KLOTILDA.—Zu, bai, zu, Bordaxuri, palio-eramalle, erriko kontzejukoa, familiako aita onragarria.

BORDAXURI (*Erotua*).—Zer? belarrondoko bat bildu nayan al zabilta emen? Zoaz emendik kanpora eta zoazte emendik begien bistatik, Katxoteiko ijituak!

KLOTILDA (*Bere aitarengana iges egiten du... Katxok kolpeka aritzeko prest dagola ematen du*).—Ez naiz emendik irtengo, esango dedana esan gabe... Aztua al dezu nere bidera irten zifian igande arrats ura?

BORDAXURI (*Dudan egonik Klotildari belarrondoko bat emango ote dion*).—Atoz onera, Terexa; etxe barrena zikintzera etorri baldin

zatela hemengo murrak eta ez gu... (Biak
jalitzen dira).

KLOTILDA.—Ba, egiak dio min egin... Ha,
Bordaxuri, zer uste duk, ixtila egin eta, es-
kuak garbirik jaliko hizala? Heldu zauk pa-
gamenduaren tenorea. Jende guzieren konda-
tuko diat hire ixtorioa eta asko harrabots
egin araziko diat hire etxearen itzulian, mun-
du guziak jakinen baitu hire egitatea. Egunak
horetako bainan gauak enetako izanen dituk.
Goza zak gelditzen zaukan fama onaren on-
darra... Hurbiltzen ari zauk tenorea fama txar
eta dolutan jarriko baihaiz. (Ixiltzen da ix-
tant bat, eta betbetan nigarrez hipaka has-
ten). Ho... ho, ho, ho, ene Piarres,... ene Pia-
rres...

O I H A L A

badira, zikindu ditzatela emengo paretak, eta ez gu... (*Biak irteten dira*).

KLOTILDA.—Bai, egiak min eman dio... A, Bordaxuri, zer uste dek, lokatza egin eta eskuak garbirik irtengo intzala? Eldu zaik ordñañaren ordua. Jende guziari kontatuko zioat ire istoria, eta naiko ixkanbilla egin-araziko diat ire etxe inguruan, mundu guziak jakingo baitu ik egindakoa. Egunak iretzako bañan gauak neretzako izango dituk. Goza zak gelditzen zaikan fama onaren kondarra... Fama txarra eta damutan izango aizen ordua urreratzen ari zaik. (*Une bat ixilik eta bat batean negarrez zotinga asten da*). O,... o,o,o, nere Plarres,... nere Plarres,...

O Y A L A

LAUGARREN GERTALDIA

JOKA-TOKIA.—Eskualdun sukalde bat.

JOKOLARIAK.—Galarrotsak, Bordaxuri, Amerikanoa, Terexa.

(Terexa supazter xokoan dago... Amerika noa karta tiratzen mahain muthurrean jarri-rik... Bordaxuri harat-hunat dabila erhotua tutak entzuten dituela... Kanpotik galarrotsak ari dira, eskualde batetik, bertzetik, hurbildik, urrundik, edozoin soinu motaz).

GALARROTSAK (Boz bat urrundik).

*Ala zorigaitzeko premu izaittea,
harek eman baiteraut bethikotz kaltea,
aitari galdeginik sortzeko partea,
galeretan eman nau, hauxe duk dotea.*

(Boz berak irrintzin batean).—Bordaxuri, ai, ai... urde gorri, hi, hi, hi,...

(Denek errepostu).—Hu... u... u...

(Bertze botz batek bertze nunbeitik).

*Aita aintzinean eta arreba ondoko,
osaba burjes hori diru fornitzeko,
ez ordian enetzat bi sei liberako
galeretan bederen leher egiteko*

LAUGARREN GERTALDIA

JOKA-TOKIA.—*Euskal sukalde bat.*

JOKALARIAK.—*Txintzarri-otsak, Bordaxuri, Amerikanoa, Terexa.*

(Terexa su-bazterrean dago... amerikanoa kartak ateratzen mai-muturrean exerita... Bordaxuri ara ta onera dabil erotua, turutak entzuten dituela... Kanpotik txintzarri-otsak ari dira, alde batetik, bestetik, gertutik, urrutitik, edozein soñu motaz).

TXINTZARRI-OTSAK (*Boz bat urrutitik*).—

Zoritzarreko mayorazgo izatea,
orrek eman dit neri betiko kaltea;
aitari eskaturik sortzeko partea,
giltzapean jarri nau, auxe dek dotea!

(Boz berak, irrintzi batean).—Bordaxuri, ai,
ai,... urde gorri i,i,i,...

(Danak erantzuna).—U... u... u...

(Beste boz batek beste nunbaitetik).—

Nere aita aurrean eta arreba ondoko,
osaba burges ori diru emateko;
ez ordea neretzat bi sei liberako, (1)
giltzapean beñepein nik ler egiteko.

(1) libera=franco.

(Botz berak, Afrikako apez mahometanoek bezala oihu eginez).—*Bordaxuri aker andia...*

(Denek aker botza eginez).—*Meee...*

(Botz berak).—*Bordaxuri asto ziria...*

(Denek astoaren orroa eginez).—*Hi-han... hi-han...*

(Hirugarren botza urrundik).—

*Zuri mintzo nitzaitzu, oi aita zilarra,
ardura dudalarik begian nigarra,
zure ta ene arraza Bordaxuritarra,
galeretan naizeno ni bainaiz bakarra,*

BORDAXURI (Erhotua amerikanoari).—*Ez dituka aditzen? Zortzigarren gaua berdin dela. Holakoak, hil behar litazkek, hil, hil... (Bethi kurri dabila).*

AMERIKANOA (Deskantsuan).—*Mutikoa, ez zaketela kasu egin, zakur erhautsiari baino gehiago.*

BORDAXURI.—*Aise duk erraitea. Ez haiz hi saltsan barne... ezagun duk... aditzen dituk, bainan senditzen ez ditukala...*

AMERIKANOA.—*Utzkik... Konprenituko die kaxketadunek zoinbait beretuko dituztelarik.*

BORDAXURI.—*Kaxketadunak ba... Ez baititek ordian heien gaztiguek saltsa hau ahanzik... Ha, edaterat bederen pagatu izan baniotekan...*

AMERIKANOA.—*Zer haiz hortan? Ez ahal duk dolurik, piltzar horieri, ixilik egon diton, arnoa ez diotakela eman eta...*

BORDAXURI.—*Ez zakiak... ez zakiat, zer izanen zen hobe.*

(Berriz ere galarrotsak entzuten dira).

(*Boz berak, Afrikako apaiz mahometanoak bezela oju egiñez*).—Bordaxuri aker aundia...

(*Danak aker boza egiñez*).—Meee...

(*Boz berak*).—Bordaxuri asto ziria...

(*Danak astoaren orroa egiñez*).—Ji-jan... ji-jan...

(*Irugarren boza urrutitik*).—

Zuri itzegiten dizut, oi aita zillarra,
sarritan dedalarik begian negarra,
zure ta nere arraza Bordaxuritarra,
kartzelan naizen arte ni bainaiz bakarra.

BORDAXURI (*Erotua amerikanoari*).—Ez al dituk aditzen? Zortzigarren gaua berdin dala. Olakoak il bear ituke, il, il,... (*Beti batera ta bestera dabil*).

AMERIKANOA (*Patxaran*).—Motel, ez zayeke-la zakur zaunkari baño kaso geyago egin.

BORDAXURI.—Errexa dek esatea. Ez ago i saltsaren barrenean... ezagun dek... aditu bai, bañan sentitzen ez ditukala...

AMERIKANOA.—Utzi... Konprendituko dute guardiak oitako batzuk arrapatzen dituzte-nean...

BORDAXURI.—Guardiak bai... Ez ditek ordea oyen kastiguak saltsa au aztu-araziko... A, edatekoa beintzat pagatu izan baniekan...

AMERIKANOA.—Zer diok? Alproja oyei, ixilik egon ditezen, ardoa eman ez diekala ta damurik al dek?

BORDAXURI.—Ez zekiat... ez zekiat, zer izan-go zan obe.

(*Berriz ere txintzarri-otsak entzuten dira*).

(Botz batek urrundik... Airea: *Dios te salve*'ren koblak).—

*Bordaxuri, atzar ba,
zure semea preso da,
konplitua da zure desira,
Klotilda orai libro da.*

(Bertze botz bat bertze nunbaitik).—

*Gure etxeke urdeak,
maite tutzue zuen umeak,
Bordaxuri jaun nagusi handiak
kondenatzen tik bereak.*

(Lehen botza berriz ere).—

*Ni naiz ni Bordaxuri,
ni naiz zuen buruzagi,
ez jarraiki ene molderi
bainan ene erraneri.*

(Bigarren botza).—

*Ale ale, Klotilda,
Bordaxuri hor heldu da,
semea preso ezarri du eta
senhar gaitzat horra aita.*

(Galarrotsak denak betan).—

(Lehen botzak urrundik, apez mahometa-
noak bezala eginez).—*Zer dela, zer dela?*

(Bigarren botzak tonu berean).—*Bordaxuri
gaztetu dela...*

(Galarrotsak danak betan).—

(Lehen botzak).—*Zer dela, zer dela?*

(Bigarren botzak).—

Semearen orde aita espos dela...

(Galarrotsak denak betan).—

(Lehen botzak).—*Zer dela, zer dela?*

(Bigarren botzak).—*Bataioa ere manatua
dela.*

(*Boz batek urrutitik... Aireā: Dios te salve' ren koplak*).—

Bordaxuri, pizkortu ba,
zure semea preso da,
kunplitua da zure naya ta
Klotilda orain libre da.

(*Beste boz batek nunbaitetik*).—

Gure etxeke urdeak
maite dituzte umeak,
Bordaxuri jaun nausi aundiak
Klotilda orain libre da.

(*Lenengo boza berriz ere*).—

Ni naiz, bai, ni Bordaxuri,
ni naiz zuen buruzagi,
ez jarraitu nere egiñari
baizikan nere esanari.

(*Bigarren boza*).—

Ia ba, ia, Klotilda,
Bordaxuri or eldu da,
semea preso jarri du eta
senargaitzat orra aita.

(*Txintzarri-otsak danak batean*).—

(*Lenengo bozak urrutitik, apaiz mahome-
tanoak bezela egiñez*).—Zer dala, zer dala?

(*Bigarren bozak doñu berean*).—Bordaxuri
gaztetu dala...

(*Lenengo bozak*).—Zer dala, zer dala?

(*Bigarren bozak*).—Semearen ordez aita
ezkongai dala...

(*Txintzarri-otsak danak batean*).

(*Lenengo bozak*).—Zer dala, zer dala?

(*Bigarren bozak*).—Batayoa ere agindua
dala.

(Galarrotsak denak betan).—

BORDAXURI.—*Nik... nik hau jasan behar dudala?*

AMERIKANOA.—*Mespresa-zatzik, mutikoa,...*

BORDAXURI.—*Barneak ez nik laguntzen hortako ere... Ez diat ene zuzenaren gaina aski senditzen... Ilhun duk, ilhun ene barnea...*

AMERIKANOA.—*Zer hiz, hoinbertzeren ondotik, duda-mudetan sartzen ari?*

BORDAXURI.—*Ba, nagok aldizka zuzenean naizenez bederen.*

AMERIKANOA.—*To, ez nian uste holakorik hire ganik aditzea.*

BORDAXURI (Kexu).—*Hire falta ere baduk!*

AMERIKANOA (Botza altxatuz).—*Zer falta diat nik?*

BORDAXURI.—*Ez baninduk pusatu egin dukan bezala, beharbada orai ez nintuan estatu huntan izanen.*

AMERIKANOA.—*To, hori behar nian beraz entzun hire ganik, milesker gisa, hiretzat egin ditudanen ondotik... Dolutua balinbahiz, ez hadila auzoan ibil hobendun-keta.*

BORDAXURI.—*Hire diru eta laguntzak ez ba-hindu eskaini, ez nintuan molde huntan izanen... Etxekoen artean ere bakarrik bainauk.*

AMERIKANOA (Xutituz bizi-bizia).—*Hire ondoan daudenak, soberakin balinbadituk, etxe huntan, urrunduko dituk heiek ere... Dudarik gabe hire urrikimeta ez zauk aski larri, hola haren emendagailu-ketan ibiltzeko... Adios beraz, anaia,...* (Jalitzen da).

(*Txintzarri-otsak danak batean*).

BORDAXURI.—Nik... nik au sufritu bear dedala?

AMERIKANOA.—Despreziatu itzak, motell...

BORDAXURI.—Barrenak ez zidak laguntzen ortarako ere... Ez diat asko sentitzen zuzen jokaturako poza... Illun zegok, illun, nere barrenena...

AMERIKANOA.—Zer? oinbesteren ondotik dudadamudetan asi al aiz?

BORDAXURI.—Bai, batzutan gogoratu egiten zait, zuzenbidetik ote nabillan edo...

AMERIKANOA.—Ez nian uste olakorik iregandik aditzea.

BORDAXURI (*Asarre*).—Ire falta ere badek!

AMERIKANOA (*Boza altxatuz*).—Zer falta diat nik?

BORDAXURI.—Ez baninduk bultzatu egin dekan bezela, bearbada ez ninduan orain estadu ontan egongo.

AMERIKANOA.—Ori bear nian, beraz, iregandik entzun, milla esker gisan, iregatik egin ditudanen ondoren... Damutu baldin bazaik, ez auzoan ibilli nori errua bota.

BORDAXURI.—Ire diru eta laguntzak eskeiñi ez baitu, ez ninduan modu ontan egongo... Etxekoen artean ere, bakarrik ikusten baldiat nere burua.

AMERIKANOA (*Zutituz bizi bizi*).—Ire ondoan daudenak sobra baldin badituk, oyek ere uxatuko dituk etxe ontatik... Dudarik gabe, ire kezka ori etzaik naiko aztun, ura aundiagotzen orrela ibiltzeko... Agur, beraz, anaya... (*Irteten da*).

(Bordaxuri mahain buruan jartzen da, bu-
rua bi eskuen artean).

(Galarrotsak berriz ere).—

(Botz bat litanien airean).—*Ohore nahi eta
emaile guti...*

(Denek).—*Gure Bordaxuri.*

(Botzak).—*Elizan pabillunketari eta kan-
poan emaztekari...*

(Denek).—*Gure Bordaxuri.*

(Botzak).—*Egunaz norbait bainan gauaz oro
iduri...*

(Denek).—*Gure Bordaxuri.*

(Botzak).—*Etxeko jaun handi bainan mol-
dez buhami...*

(Denek).—*Gure Bordaxuri.*

(Botzak).—*Bertzen konduentzat xuhur bai-
nan berenentzat larri...*

(Denek).—*Gure Bordaxuri.*

(Galarrotsak berriz ere... Harriak tiratzen
dituzte sukaldeko leihoari).—

BORDAXURI (Errabian badoha aterat eta ga-
larrots-larieri mintzo).—*Etxeari harrika orai
berriz? Hurbil zizte putrun zikinak... Kapa-
ple balinbazirezte... Gizona dena agert dadi-
la hunat...*

(Galarrotsak denak betan).—*Hu... hu...
hu...*

BORDAXURI.—*Muturrak hautsiko ahal ditu-
tzue denek gau huntan...* (Athea banpakoan
heste du).

(Galarrotsak denak betan).—*Hu... hu...
hu...* (eta harrabots).

BORDAXURI (Ixtant bat kurri ibilirik, Tere-
xari mintzo da).—*Zuk ere ez duzuia phitsik*

(*Bordaxuri mai-buruan exertzen da, burua bi eskuen artean duela*).

(*Txintzarri-otsak berriz ere*).

(*Boz bat letanien airean*).—Onra nai eta emalle gutxi...

(*Danak*).—Gure Bordaxuri.

(*Bozak*).—Elizan palio-eramalle ta kanpoan emakume zale dan ori...

(*Danak*).—Gure Bordaxuri.

(*Bozak*).—Egunaz norbait bañan gauaz al-proja bat iduri...

(*Danak*).—Gure Bordaxuri.

(*Bozak*).—Etxaldeko jaun bikaña, bañan berez ijito aundi...

(*Danak*).—Gure Bordaxuri.

(*Bozak*).—Besteen kontuetan estu bañan bereetan lasayegi...

(*Danak*).—Gure Bordaxuri.

(*Txintzarri-otsak berriz ere... Arriak botatzen dituzte sukaldeko leyora*).

BORDAXURI (*Errabiz atera joan da txintzarri-otsa jotzalleai mintzatzen zaye*).—Orain berriz etxeari arrika? Urbildu zaitzete, zerri zikiñak,... gauza baldin bazerate... Gizona dana agertu dedilla onera...

(*Txintzarri-otsak danak batean*).—U... u... u...

BORDAXURI.—Muturrak autsiko al dituzute danok gau ontan... (*Atea golpe batez ixten du*)

(*Txintzarri-otsak danak batean*).—U... u... u... (*eta ixkanbilla*).

BORDAXURI (*Pixka batean aurrera ta atzera ibilli-ta Terexari esaten dio*).—Zuk ere ez al

erraiten? (Terexak espaldak altxatzen diozka).
Iduri duzu ez ditutzula senditzen ere eni egi-
ten dituzten afruntuak.

TEREXA (Erdi nigarrez).—Zer nahi duzu nik egitea?

BORDAXURI (Errabian).—Zer nahi egitea? Pix-
ka bat ene penetan pharte hartzea. Nik sen-
ditzen dudanetik poxi bat senditzen bazinu,
ez baizinitake hor egon, apha bezala zabal-
dua... Ha, uste nuen haur bat bederen geldi-
tzen zautala... Ez dut beraz gehiago haurrik
ere...

(Terexa xutitzen da eta nigarrez jalitzen).

BORDAXURI (Bakarrik xutik).—Horra beraz
nun dutan mundu guzia ene kontra... Mundu
guzia bizkarrean... Bakarrik... Nehoren amo-
diorik ez, bainan denen herra ba... Ifernua
bertzerik othe da? (Jartzen da mahain muthu-
rrean).

Denak kontra izanik ere, phitsik ez litake
ene kontzientzia ene alde banu... Bainan, ene
kontzientziaren lekukotasunak berak ez nu
laguntzen... Bertzetarik ohorerik ez hartzea,
phitsik ez da... Bainan bere buruari ohore ezin
eman izaita, hori da hori izigarrikeria... Eta
ni, Bordaxuri, hortaratua naiz. Bertzek nitaz
zuten estimua galdu dut... Ez dute gehiago
enetzat, izanaren izena baizik... Bainan, latz-
garriago dena, ene buruaz nihaurek nuen
estimua, hura duk bereziki galdua...

Gaizki eginaren biharamuna... ha, egun
ilhuna...

(Galarrotsak).—

OIHALA

dezu ezer esaten? (*Tereyak sorbaldak altxatzen diozka*). Ematen dezu ez dituzula sentitzen ere, neri egiten dizkidaten iraiñak.

TEREXA (*Erdi negarrez*).—Zer nai dezu nik egitea?

BORDAXURI (*Errabiaz*).—Zer nai egitea? Pixka bat nere penetan parte artzea. Nik sentitzen dedanetik apur bat sentituko bazenu, etziñake or egongo sapoa bezin zabalik... A, uste nuen aur bat beintzat gelditzen zitzaidala... Beraz, aurrik ere ez det...

(*Terexa zutitu ta negarrez irteten da*).

BORDAXURI (*Bakarrik zutik*).—Orra beraz nun dedan mundu guzia nere kontra... Mundu guzia bizkarrean... Bakarrik... Inñoren amoriorik ez, bañan danen gorrotoa bai... Infernua besterik ote da? (*Exeritzen da mai muturrean*).

Danak kontra izanda ere, utsa litzake nere kontzientzia nere alde banu... Bañan nere kontzientziaren testiguantzak berak ez dit laguntzen... Besteengandik onrarik ez artzea, ez da ezer... Bañan bere buruari onra ezin eman izatea, ori da ori gauza izugarria!... Eta ni, Bordaxuri, ortaratua naiz. Bestek nitzaz zuten estimazioa galdu det... Ez dute neretzat izanaren izena baizik... Bañan, latzgarriagoa dana, nere buruaz neronek nuen estimazioa bera ere, galdu egin det...

Gaizki egiñaren biaramuna... ori egun illuna!...

(*Txintzarri-otsak*).

O Y A L A

BOSTGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Apez etxe barne bat... jan-leku eta salun.

JOKOLARIAK.—Erretora, Joana, Paxkal, Kaxo, Bordaxuri.

ERRETORA (Eskun eta ezker dabila).—*Ha... bethi beha egon behar da hemen ere. (Oihuz) Joana, hu Joana, ekatzu bazkaria.*

JOANA.—*Heldu, heldu...*

ERRETORA (Jartzen da. Paper baten irakurtzen ahantzia, ez da ohartzen ere Joanak zerbitzatu duela... Joana jali ondoan).—*Ha... halere oihala ez baitaut eman. Beti zerbait eskas... (Oyhal bat hartzen du, eta bere pape-raz errotik okupatua, ez da ohartzen ahortzen duen kollera beroegi duela... Grimaska, beroegi ezin iretsiz lotzen da). Ha emazteki santsana,... Joana, Joana. (Agertzen da). Hoinbertze eta hoinbertze aldiz errana dauzute, ez eni beroegirik zerbitzatzeko... Nun duzu burua? Orain ere ahoa erre dut...*

JOANA.—*Uste nuen epela zela... Haustean mintonatzen naukan bulta huntan.*

BOSTGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Apaiz-etxe barren bat... jan-leku eta sala.*

JOKALARIAK.—*Erretorea, Joana, Paskal, Kaxo, Bordaxuri.*

ERRETOREA (*Aurrera ta atzera dabil*).—A... beti zai egon bear da emen ere. (*Ojuz*) Joana, e, Joana, ekatzu bazkaria.

JOANA.—*Banoa, banoa...*

ERRETOREA (*Exeritzen da. Paper bat irakurtzen aztuta ez da konturatzen ere Joanak serbitu duela... Joana irten ondoren*) A... alare ez dit oyala jarri. Beti zerbait falta... (*Oyal bat artzen du, eta bere paperakin zearo okupatuta, ez da konturatzen aora daraman kotxarea beroegi dagola... Keñuka asten da, beroegia ezin irentsirik*). Ai, emakume zirtzilla!... Joana, Joana. (*Agertzen da*). Oinbeste eta oinbeste aldiz esana dizut, ez neri beroegirik serbitzeko... Nun dezu ba burua? Orain ere aoa erre det...

JOANA.—*Uste nuen epela zegola... Errautsetan neukan goxo goxo momentu ontan.*

ERRETORA.—*Kexagarri ere bada azkenean... (Athean norbait) Ori berriz ere norbait bada hor...*

JOANA.—*Nor baita ere erranen diot ez dela tenorea hunarat jiteko... Okupatua zirela.*

ERRETORA.—*Ez holakorik erran... apheza denentzat da, eta, tenore guziz, etxean bada, etxean da.*

JOANA.—*Zuk ez duzu jateko astirik ere hartzen... Eta gero, beti kezu zira, eta nik ditut pekatzen. (Berriz joiten dute). Heldu, heldu... Jendek ez dutela komprenituko ez dela jenden etxerat jin behar jateko tenoretan?... (Jalitzen da eta athearen gibelean mintzo aditzen da gizon batekin). Ha... zu zinena...*

PAXKAL.—*Ba, Jaun erretorak erran daut jiteko... Zer othe du? Hor dea?*

ERRETORA.—*Ha, Paxkal, gure elizako zeinu joilea...*

JOANA (Bethi athearen gibeletik).—*Jiten ahal zinen ba bertze tenore batez eta ez bazkari denboran. Jes, (agertuz) Paxkal, ezkila joilea da hor, jauna. Igortzen ahal duta, aski duela bertze aldi batez jitea erranez...*

ERRETORA.—*Ez, errozu sar dadin... Esne zopa hau emazu berriz beroan...*

JOANA.—*Ha, berriz ere haste beraz... Sar zite... (Paxkalek grimasa bat egiten dio, "merexi" erran nahi balio bezala).*

PAXKAL.—*Agur, jaun erretora.*

ERRETORA.—*Bai, zuri ere, Paxkal,... Jar zaitte... jin zira beraz hunaraino.*

PAXKAL.—*Ba, jauna, zuk erran bezala.*

ERRETORA.—*Ba, ekarrarazi zitut, ez bainiz sobera kontent zutaz.*

ERRETOREA.—Asarretzeko ere bada azke-
nean... (*Atean norbait*) Orra, berriz ere bada
or norbait...

JOANA.—Norbait bada, onera etortzeko ga-
raya ez dala esango diot... Okupatuta zaude-
la.

ERRETOREA.—Ez olakorik esan... Apaiza, da-
nentzakoa da garai guzietan; etxean bada,
etxean da.

JOANA.—Zuk ez dezu jateko astirik ere ar-
tzen... Eta gero, beti asarre zaude eta nik pa-
gatzen ditut. (*Berriz ere jotzen dute*). Banoa,
banoa,... Jendeak ez al du konprendituko ez
dala iñoren etxera etorri bear jateko garaye-
tan? (*Irteten da eta atearen atzean gizon ba-
tekin izketan aditzen da*). A... zu al zifian?

PAXKAL.—Bai, erretore jaunak esan dit etor-
tzeko... Zer ote du? Or al da?

ERRETOREA.—A, Paxkal, gure elizako kan-
pai jotzallea...

JOANA (*Beti ategaren atzetik*).—Etorri al zi-
ñan, ba, beste garai batean, eta ez bazkari
denboran. Jesus! (*Agertuz*) Paxkal, kanpai
jotzallea da or, jauna. Bialduko al det, naikoa
duela beste aldi batez etortzea esanaz?

ERRETOREA.—Ez, sartu dedilla esayozu...
Esne-zopa au jarri zazu berriz ere beroan...

JOANA.—Ai, berriz ere asi egin bear... Sar-
tu zaitez... (*Paxkalek keñu bat egiten dio*
"merezi" esan nai balio bezela)

PAXKAL.—Agur, erretore jauna.

ERRETOREA.—Bai zuri ere, Paxkal,... Exeri
zaitez... Etorri zera beraz oneraño.

PAXKAL.—Bai, jauna, zuk esan bezela.

ERRETOREA.—Bai, ekarri-arazi zaitut, zutzaz
oso kontentu ez nagolako.

PAXKAL.—Nitaz ez kontent? Ez dituzta zenuak behar diren tenoretan joiten?

ERRETORA.—Ez da hortan... Elizako enplegatuak, Paxkal, behar dute etsenplu ona eman... Zerbitzu guzietan, gizonak serio behar badu, Jainkoaren zerbitzuan oraino serio sago...

PAXKAL.—Ez niza ni serio sago?

ERRETORA.—Serio sago zintazke, arnoa ez bazinu hoin maite.

PAXKAL.—Ba, xantreak ere edaten du, ez duzu hatik ura erasiatzen.

ERRETORA.—Bego xantreakrena harentzat... Arrengurak entzunak ditut... Tutaka ari izan zireztela hil-herri zaina eta zu, egun hotako galarrotsetan. Eta nuntik? Hil herrietarik omen...

PAXKAL (Irriz).—Ba, erranen dautzut, Jaina, hil-herri zain hori, edanarekin mutxitzen da... Emazteak ere joiten du, eta...

ERRETORA.—Ez niz irri gose... Ez da hortan irri egitekorik.

PAXKAL.—Pinta bat arno bazuela eta, edaterat izan gira ilhargi xuritara, hil-errietarat... Eta gazteria tutaka ari baitzen Pluma-gaineko okiloari buruz, guk ere pixka bat lagundu ditugu... Horra egia den bezala...

Erretora.—Okiloak eta gaineratikoak bere gisa utziko ditutzu. Gizona, gizon baita... Eta zuen galarrotsa ez omen zen arras galarrotsa... Requiem'en kantatzen ere ari izanak omen zirezte...

PAXKAL.—Alabainan, hil-herrietan...

ERRETORA.—Bon, aski... Bertze aldian, hil-herriak errespetatuko ditutzu... Gero, ber-

PAXKAL.—Nitzaz kontentu ez? Ez al ditut kanposantuk bear diran orduetan jotzen?

ERRETOREA.—Ez da ori... Elizako morroyak ejenplu ona eman bear dute, Paxkal,... serbitzu guzietan gizonak serioa izan bear baidu, Jaungoikoaren serbitzuan serioagoa oraindik...

PAXKAL.—Ez al naiz ni serioa?

ERRETOREA.—Serioagoa ziñake, ardoa ain maite ez bazendu.

PAXKAL.—Bai, sakristauak ere edaten du, ez diozu orratik erritan egiten.

ERRETOREA.—Bego sakristauarena beretzat... Arrenkurak entzun ditut... turutaka ari izan zeratela kanposantu-zaia eta zu egun oetako txintxarri-otsetan. Eta nundik? Kanposantutik omen...

PAXKAL (*Parrez*).—Bai, esango dizut, Jau-na; kanposantu-zai ori edanarekin txispatu egiten da... Emazteak ere jotzen du, eta...

ERRETOREA.—Ez det par egiteko gogorik... Ez dago ortan par egitekorik.

PAXKAL.—Pitxar bat ardo bazuela eta ura edaten izan gera illargiaren argitan kanposantuan... Eta gazteria turutaka ari zitzayon Plumagañeko birigarro orri, eta guk ere pixka bat lagun egin diegu... Orra egia, dan bezela...

ERRETOREA.—Birigarroak eta gañerakoak bere gisa utziko dituzu. Gizona, gizona baita... Eta zuen txintxarri-otsa ez omen zan txintxarri-otsa bakarrik... *Requiem* kantatzen ere ari izan omen zerate...

PAXKAL.—Izan ere, kanposantuan...

ERRETOREA.—Naikoa da... Urrengoan kanposantuak errespetatuko dituzute... Gerō, ga-

tzalde, atzo ezkila korda tiratzéan, bereterraren aintzinean hiruzpalau sakre alimale erran omen ditutzu...

PAXKAL (Kexu).—*Hiruzpalau, hiruzpalau? Ez da egia hori...*

ERRETORA.—*Ba, toki seguretik jakina dut...*

PAXKAL.—*Hiruzpalau, biga erran ditut bakarrik... Pu... eta ko... A... hasi nuen, bainan ez nuen bururatu... Nahi nuke jakin nork salhatzen dauzkitzun holako gezurrak.*

ERRETORA.—*Eliza ez da sakreko lekua, halere gutiago haurrak ondoen direlarik.*

PAXKAL.—*Ba, haurrak, ba... Ez dautzute erran zure beretterrek zertako kezatu naizen? Hori ez dautzute erran...*

ERRETORA.—*Zertako kezatu zira?*

PAXKAL.—*Zeren-eta zeinu korda zikindu baitautate torxa arraxinez eta kedarez! Goxo baita han kordari lothu-eta, eskua dena bikheta eta beltz jalitzea. Hori ez dautzute ez salhatu zure beretterrek.*

ERRETORA.—*Bon, dena den, kasu emazu zer manera erabiltzen duzun; Jainkoaren etxean ez dezaket nik onhart holako molderik...*

PAXKAL.—*Oroena behar da entzun, jaun erretora...*

ERRETORA.—*Ontsa da... Bethi, ene berri jakinen duzu... Orai erretiratzen ahal zira... Joana, gizon hau segi zazu!*

PAXKAL (Jaliz).—*Nahi nuke jakin nork salatzen dauzkitzun horiek guziak.*

JOANA (Athe gibeletik).—*Merexi... entzun ditutzu zureak...*

PAXKAL.—*Zaude ixilik gero zu... mutzurdin salatari...*

fiera, atzo kanpayaren sokatik tiratzean, elizmutillan aurrean iru edo lau bat birau gordin esan omen dituzu...

PAXKAL (*Asarre*).—Iru edo lau, iru edo lau? Ez da ori egia...

ERRETOREA.—Bai, toki segurutik jakin det...

PAXKAL.—Iru edo lau, bi bakarrik esan ditut... Pu... eta ko... A... asi nuen, bañan ez nuen bukatu... Jakin nai nuke nork salatzen dizkizun olako gezurrak.

ERRETOREA.—Eliza ez da birauetako lekua, ain gutxiago aurrak aldamenean dirala.

PAXKAL.—Bai, aurrak, bai... Zure elizmutillak ez al dizute esan zergatik asarretu naitzen? Ori ez dizute esan...

ERRETOREA.—Zergatik asarretu zera?

PAXKAL.—Zergatik? kanpai-soka erretxiñaz eta kedarrez zikindu didatelako! Goxoa baita, an sokari eldu ta esku dana pikeaz-ta beltz ateratzea. Ori ez dizute salatu zure elizmutillak.

ERRETOREA.—Dana dala, kontu egizu zer modutan zabiltzan; Jaungoikoaren etxean ez dezaket nik ontzat artu olako modurik...

PAXKAL.—Danena entzun bear da, erretore jauna,...

ERRETOREA.—Ondo da... Aurrera ere nere berri jakingo dezu... Orain erretiratu zindeke... Joana, lagundu zayozu gizon oni!

PAXKAL (*Irteerakoan*).—Jakin nai nuke nork salatzen dizkizun oik danak.

JOANA (*Ate atzetik*).—Merezi... entzun dituzu zureak...

PAXKAL.—Zaude ixilik gero zu... nesказар salataria...

ERRETORA (Joana deituz).—*Joana!* (Agertzen da). *Bertze aldian, ene bisitatiarrak ixilik segituko ditutzu kamporat... Ekatzu bazkaria... (Bakarrik mintzo) Orai berriz, zeinu joilea tutaka... beren usaia basa horrekin... Ixilik utzi banu, hori berdin heldu den gauean elizako zeinuekin hasiko zen galarroska.*

JOANA (Ekartzen du bazkaria).—*Kasu emazu, beroegi balinbada ere.* (Jalitzen da)

ERRETORA (Janez bakarrik).—*Mundu huntan zer nahi gizon mota bagira... langileak eta alferrak, xuxenak eta makurrak,... bitxiak ere... Gauaz zalapartaka dudamudazko obretan artzeko, hor ba, dotzenan hamahiru kausitzen dira... Bainan ongiaren alde, zalaparta bera erakusteko eskuak dituen erhi bezenbat gizon ere ez ditake kausi.*

(Athea jotzen dute).

JOANA (Agertuz).—*Gizon bat zure galdez...*

ERRETORA.—*Nor da?*

JOANA.—*Ez dakit, ez arradorik, jauna.*

ERRETORA.—*Sar-araz zazu... Ori... Hau, joan zazu.* (Bazkaria emaiten dio... Katxo sartzen da). *Ha, zu zirea, Katxo,... Jainkoak dauzula egun on... Hum, ez zira maiz huntat agertzen...*

KATXO.—*Ez, ez jada ez dakizunik phitsik ez... Bainan dakizunekin eta denek dakitenekin espantu guti.*

ERRETORA.—*Bon!*

KATXO.—*Aditu ditutzu tuta horiek, eta no-rentzat diren ba ahal dakizu?...*

ERRETORA.—*Ezin uka...*

KATXO.—*Horra, jauna, zer gizona dugun*

ERRETOREA (*Joanari deituz*).—Joana! (*Agertzen da*). Beste batean, nere bixitatzalleak ixilik lagunduko dituzu kanpora... Ekatzu bazkaria... (*Bakarrik izketan*) Orain berriz kanpai jotzallea turutaka... bere usuario basati errekin... Ixilik utzi banu, datorren gabea berdin asiko zan ori elizako kanpayakin txintxarri-otsetan.

JOANA (*Ekartzen du bazkaria*).—Kontu egizu beroegi ote dagon. (*Irteten da*).

ERRETOREA (*Bakarrik jaten*).—Mundu ontan mota guzitako gizonak gaude... langilleak eta alperrak, zuzenak eta okerrak... zoroak ere bai... Gauaz zalapartaka dudamudazko zer-egitietan aritzeko, dozenan amairu arkitzen dira... Bañan onaren alde zalaparta bera erakusteko, eskuak beatz ainbat gizon ere ezin arkitu ditezke.

(*Atea jotzen dute*).

JOANA (*Agertuz*).—Gizon bat zure galdez...

ERRETOREA.—Nor da?

JOANA.—Ez dakit, ez ezaguna, jauna...

ERRETOREA.—Sarrerazi zazu... Tira... au eraman zazu. (*Bazkaria ematen dio... Katxo sartzen da*). A, zu al zera, Katxo?... Jaungoikoak dizula egun on... Um, ez zera zu maiz onera agertzen...

KATXO.—Ez, ez da onezkero ez dakizunik... Bañan dakizunekin eta danak dakitenekin argurio gutxi, jauna,...

ERRETOREA.—Ondo da!

KATXO.—Aditu al dituzu turuta oyek eta no-rentzat diran bai al dakizu?...

ERRETOREA.—Ezin ukatu...

KATXO.—Orra, jauna, zer gizona degun

kartiorean... Kontseilari eta elizan pabillun-
ketari.

ERRETORA.—Hanbat gaixto gaizki ibili ba-
linbada...

KATXO (KEXU).—Balinbada, balinbada? Zer
uste duzu, itsurarat eta arrazoinik gabe mun-
tatuak direla galarrots horiek?

ERRETORA.—Galarrots, harrabots, bainan
egia nun da?

KATXO.—Egia nun den? Semea han galere-
tarat kondenatua, horra egia... Zertako kon-
denatua izan da, galda gure Klotildari...

ERRETORA. Klotildak ez othe du makur ho-
rietan deus hobenik?

KATXO.—Zer hoben izan dezake? Aita-se-
meak ondotik zituen... Semea hautatu du. Li-
bro ahal zen... Ez ahal da hortan gaizkirik
egin?

ERRETORA.—Aita semeak ondotik... Hum...
Ez othe ditu berak pixka bat tiratu?

KATXO. Ho, badakit, jauna gu pobreak ga-
rela eta familia apaletik garelakoan gure erra-
nak denak gezurtzat dauzkatela...

ERRETORA.—Egia garbia, lañoki da athera-
tzen gizonaren ahotik... Zure elheek sobera
minberak dira, egia garbia izaiteko.

KATXO.—Zuhaurek zinion ba predikuan,
phariseu urgulutsua Jesusek kondenatu zue-
la, eta publikano apala goretsi zuela... Uste
nuen, prediku hori entzun eta, Jesusen mi-
nixtroaren etxean, jende aphaltak begitarte
hobeagoa izanen zuela...

ERRETORA.—Ba, bainan, delako publikanoak
ez zuen phariseua mespresatu... Aphaltasu-
na, berez, urhe da, bainan zure urhea, bertzen

errian... Kontzejukoa eta elizan palio-erama-
llea.

ERRETOREA.—Ainbat gaizkiago, gaizki ibilli
baldin bada...

KATXO (*Asarre*).—Baldin bada, baldin ba-
da? Zer uste dezu, itxumenean eta arrazoirik
gabe prestatu dirala txintzarri-ots oyek?

ERRETOREA.—Txintzarri-ots, ixkanbil-ots, ba-
ñan egia nun da?

KATXO.—Egia nun dan? Semea an kartzelan
kondenatua, orra egia... Zergatik kondenatua
izan dan, galdetu gure Klotildari.

ERRETOREA.—Klotilda bai ote da oker oye-
tan batere kulpa gabe?

KATXO.—Zer kulpa izan dezake? Aita-se-
meak atzetik zituen... Semea autatu du. Libre
zala uste det... Ortan gaizki egin al du?

ERRETOREA.—Aita-semeak atzetik... Hum...
Ez ote ditu berak pixka bat tiratu?

KATXO.—O, badakit, jauna, gu pobreak ge-
rala, eta famili apalekoak geralako, gure esa-
nak gezurtzat dauzkatela danak...

ERRETOREA.—Egi garbia poliki ateratzen da
gizonaren aotik... Zure itzak minbera xama-
rrak dira, egi garbia izateko...

KATXO.—Zerorrek zenion, ba, sermoyean, Je-
susek fariseo arroa kondenatu ta publikano
apala goratu zuela... Sermoi ori entzunda us-
te nuen, Jesusen ordezkoaren etxean, begi-
tarte ohea izango zuela jende apalak...

ERRETOREA.—Bai, bañan dalako publikanoak
ez zuen fariseua despreziatu... Apaltasuna be-
rez urrea da, bañan zure urrea besteen gorro-

herraz lohitua duzu... Emozu bere beztimenda aphaltasunari zure baithan eta aphal bezala ohoratuko zaitut.

KATXO.—Gure Jainkoak erran duela: Urus pobreak, ez zira zu beretik ari...

ERRETORA.—Ez du pobre batek pobre izaitiaz baitezpada merezimendurik, bainan bere pobrezia ohoratzeaz... Nahitarat, bokazioenez pobre direnek, hek ba, badute merezimendu... Bertzek aldiz, noiz nola.

KATXO.—Ikusten dut pobreziaz axola guti duzula...

ERRETORA.—Ni pobre naiz nahitarat... Ez dut aberasteko xederik batere. Eta pobrezia ohore bat baitzaut... Zu ere pobre zira, bainan ezin bertzez. Errabiatua baitzira aberastu beharrez... zure pobrezia ez duzu ohoratzen bainan higuintzen...

KATXO.—Pobre zira bainan aberatsen alde...

ERRETORA.—Ez naiz ni ez aberatsen ez pobren alde, denen artzain nahi dut!

KATXO.—Ikusten dut athez trompatu naizela... Uste nuen etxe huntako jauna baithan komprenimendu gehiago aurkituko nuela...

ERRETORA.—Etxe huntako jaunak ez dautzu egiaz bertzerik salduko... Hanbat gairto ez bazira haren salgailuaz kontent...

KATXO.—Agur...

ERRETORA.—Ba, agur... (Bera) Hala da eta... Badira pobre gairtoak eta ere aberats gairtoak... Pobreak izan dezake aberasteko desira gizonkiago bizitzeko, familia hobeki altxatzeko, ongi gehiago egiteko... Holako xedez aberastasuna desiratzea ontsa da... Bainan, pobreak aberastasuna desiratzen badu phesta

toaz loitua dezu... Emayozu bere jantzia apaltasunari zure gogoan, eta apal bezela onratuko zaitut.

KATXO.—Gure Jainkoak “Zorionekoak pobreak” esan du, bañan zu ez zatoz orrekin bat...

ERRETOREA.—Pobre batek ez du pobre izateaz nai ta nai ez merezimenturik, bere pobreza onratuaz baizik... Ala naita, bere gogotik pobre diranak, oyek, bai, oyek merezi dute... Besteak, berriz, noiz edo nola?

KATXO.—Ikusten det pobrezaz ajola gutxi dezula...

ERRETOREA.—Ni pobrea naiz ala naita... Ez det aberasteko asmorik batere. Eta pobreza onra bat zait neri... Zu ere pobrea zera, bañan ezin bestez. Aberastu bearrez irrikitan zaude ta zure pobreza ez dezu onratzen, zikitzen baizik...

KATXO.—Zu ere pobrea zera, bañan aberatsen aldekoa...

ERRETOREA.—Ez naiz ni ez aberatsen ez pobreen aldekoa, danon artzaya izan nai det!

KATXO.—Ikusten det atez engañatu naizela... Uste nuen etxe ontako jaunaren gogoan borondate geyago arkituko nuela...

ERRETOREA.—Etxe ontako jaunak ez dizu egia besterik salduko... Ainbat gaizkiago ez bazera aren saltzekoaz kontentu...

KATXO.—Agur...

ERRETOREA.—Bai, agur... (*Bera*) Ala da eta... Badira pobre gaixtoak eta aberats gaixtoak ere bai... Pobreak izan dezake aberasteko gogoia gizenkiago bizitzeko, familia obeto akitzeko, on geyago egiteko... Olako asmoz aberastasuna desiatzea ondo dago... Bañan pobreak aberastasuna desiatzen badu festa egiteko edo

egiteko edo bertzen zangopetan erabiltzeko, hori gaizki litake... Aberats gaixtoa eta pobre gaixtoak elgar iduri dute... Aberats gaixtoak, obraz bekatu egiten du, dituenak gaizki baliatuz... Pobre gaixtoak aldiz, gogoz egiten du, ez dituenak desiratuz gero hetaz gaizki baliatzeko.

JOANA (Apeza bakarrik mintzo-eta, hau hartaz ohartzen da... Han dago bazkaria eskuetan, irriz, espaldak altxatuz).—*Ez naiz haatik bakarra, jauna,...*

BORDAXURI.—*Ha, hor zinená zu ere? Zer ez zirela bakarra?*

JOANA (Zerbitzatuz).—*Badut uste, ni baino beherago jausten ari ziren.*

ERRETORA.—*Zer derasazu?*

JOANA.—*Bethi trufatzen banauzu, nehor gabe elheketan artzen nizela... Ni bederen gathuarekin artzen naiz... Etá zu aldiz, zure buruarekin...*

ERRETORA.—*Ez nintzen ene buruarekin elheketan ari...*

JOANA.—*Norekin ari zinen ba?*

ERRETORA.—*Zu zure gathuarekin eta ni ene aingeru begiralearekin...*

JOANA.—*Ha, ... aphezak bethi azken hitza bere... ba, ba, ... (Athea jotzen dute). Yes, nor othe da oraino hor? Egun ez ziuzte bazkari-terat ere utziko... Hanbat gaixto, nor nahi izanik ere, erraiten diot bertze aldi batez jin da dien, ez zirela hemen.*

ERRETORA.—*Erran dautzut lehen ere, hemen nizelarik, hemen nizela...*

besteak ankapean erabiltzeko, ori gaizki egongo litzake... Aberats gaixtoa eta pobre gaixtoa alkarren antzekoak dira... Aberats gaixtoak obraz egiten du pekatu, dituenaz gaizki baliatuz... Pobre gaixtoak, berriz, gogoz egiten du pekatu, ez dituenak desiatuz gero ayetaz gaizki baliatzeko.

JOANA (*Apaiza bakarrik izketan ari da ta Joana ortaz konturatzen da... An dago, bazkaria eskuetan, parrez, sorbaldak altxatuz*). Ez naiz orratik ni bakarrik jauna,...

ERRETOREA.—A, or al zifian zu ere? Zer ez zerala zu bakarrik?

JOANA (*Serbituz*).—Ni baño beerago jeisten ari zerala uste det.

ERRETOREA.—Zer diozu?

JOANA.—Beti burla egiten didazu, ifior gabe izketan aritzen naizela... Ni beintzat katuarekin aritzen naiz... Eta zu berriz, zure buruarekin...

ERRETOREA.—Ez nintzan nere buruarekin izketan ari...

JOANA.—Norekin ari zifian ba?

ERRETOREA.—Zu zure katuarekin, eta ni nere aingeru guardakoarekin...

JOANA.—Ai,... apaizak beti azken itza berea dute... bai, bai,... (*Atea jotzen dute*). Jesus, nor ote da orain ere or? Gaur ez zaitue bazkaltzen ere utziko. Ainbat gaizkiago, nornai izanik ere, esango diot beste aldi batean etorri dedilla, ez zerala emen.

ERRETOREA.—Esan dizut len ere, emen naizenean, emen naizela...

JOANA.—*Xilotik behatu behar dut haatik lehenik nor den. (Jalitzen da, eta berriz segidan sartzen). Bordaxuri da hor.*

ERRETORA.—*Bon, bazkari hau berriz ere emazu supazterrean.*

JOANA.—*Igor-azu.*

ERRETORA.—*Erranez geroz... Ez eta ez... Mugi zite...*

JOANA (Batere ez kontent obeditzen du).

BORDAXURI (Athe gibelean).—*Agur, andere gelaria, hemen dea jaun erretora?*

JOANA.—*Bai, jauna, hemen da... Aintzina zite.*

ERRETORA.—*Agur, Bordaxuri!*

BORDAXURI (Kara dorphe batekin).—*Agur, jaun erretora.*

ERRETORA.—*Jar zite... Goizik zabilta hemen gaindi... Merkatukari dudarik gabe?*

BORDAXURI.—*Ba, ba eta ez... Badakizu, dudarik gabe, gure harat-huñatetan xehetasun asko.*

ERRETORA.—*Harrabotsak salhatzen dituztenak ez dezazket ezin entzun...*

BORDAXURI.—*Hortakotz jina niz, jauna,... (Botza minberatuz) Mundua nere kontra dut. Munduko jendeak, familiako hurbilenak barne, hotz eta etsai senditzen ditut... Heldu niz beraz Jainkoaren gizonaren ganat, bertze mundutiarrak bederen pietate erakutsiko dautalekoan...*

ERRETORA.—*Orhoit zaite, Bordaxuri, amodioa ez dela biltzen amodioa erainez baizik...*

BORDAXURI (Bortizki).—*Ez diot onhart, zorritik athera jende herresta batzuek etreko jaun bat, ni egiten nauten bezala, zikhin dezaten.*

JOANA.—Ate-zulotik begiratu bear det orratik lendabizi, nor ote dan. (*Atera ta berriz ere segituan sartu*). Bordaxuri da or.

ERRETOREA.—Ia, ba, bazkari au berriz ere jarri zazu su-bazterrean.

JOANA.—Bialdu zazu...

ERRETOREA.—Esan da gero ere... Ez eta ez... Mugi zaitez...

JOANA (*Batere gogorik gabe obeditzen du*)

BORDAXURI (*Ate atzean*).—Agur, andre gelaria, emen al da erretore jauna?

JOANA.—Bai, jauna, emen da... Aurrera...

ERRETOREA.—Agur, Bordaxuri!

BORDAXURI (*Arpegi illun batekin*).—Agur, erretore jauna.

ERRETOREA.—Exeri zaitez... Goiztar zabilta alde ontatik. Ferira dudarik gabe?

BORDAXURI.—Bai ta ez... Badezu, dudarik gabe, gure itxilluen naiko berri.

ERRETOREA.—Ixkanbillak salatzen dituztenak entzun gabe, ezin egon nindeke.

BORDAXURI.—Orregatik etorri naiz, jauna,... (*Boza minberatuz*) Mundua nere kontra det. Munduko jendeak, familiako urkoenak ere bai, otz eta etsai sentitzen ditut... Jaungoikoaren gizonarengana etorri naiz beraz, beste mundukoak beintzat errukirik erakutsiko didatelakoan...

ERRETOREA.—Oroitu zaite, Bordaxuri, amorioa ez dala biltzen amorioa ereinda baizik...

BORDAXURI (*Zakar*).—Ontzat ezin artu det, zorritik sortutako jende zirtzil batzuek etxaldekoko jaun bat zikintzea, ni egiten nauten bezela.

ERRETORA.—Ez da jende zorritik atheraturik, Bordaxuri,... Gizona gizon da saski petik ere.

BORDAXURI.—Ardi bat ere ez iguzkiaren azpian eta horiek hola zabaldu behar dutela?

ERRETORA.—Gizonaren balioa ez da ardie-tan bainan bere gizontasunean.

BORDAXURI.—Erakutsiko diote Bordaxurik, besoak aski luze dituela, irri eta trufa guzien sar-arazteko...

ERRETORA.—Gure ahalak balia detzagun, ez bertzen bentzutzeko, bainan heien hobetze-ko.

BORDAXURI.—Zer derasazu? Jende zikin horiek, hoinbertze kalte eni egin ondoren, nik oraino lagundu behar ditudala? Ez ahal dut horieri buruz zorrik?

ERRETORA.—Gorago den jendea, apalagoeri buruz, bethi zorretan.

BORDAXURI.—Zer zor diotet nik jende herresta horieri?

ERRETORA.—Zor diozute zuhaur ziren mailerat, horien altxatzea...

BORDAXURI (Koleran).—Ene heinean horiek behar ditudala ezarri? Errazu ba, behar ditudala ene etxean sartu, ene ontasunetan phar-zuer hartu... Errazu, ba, hasian hasi, ene semearekin horien alaba behar dudala ezkondu...

ERRETORA.—Horiek guziak eginik ere, oraino horieri zorretan zinintazke...

BORDAXURI.—Zer? Nor gira burutik maingu... zu ala ni? Bainan zer diotet zor jende horieri, zer?

ERRETOREA.—Ez dago zorritik sortutako jenderik, Bordaxuri,... Gizona gizona da, sasikoa bada ere.

BORDAXURI.—Eguzkiaren azpian ardi bat ere ez, ta oyekek ola gallendu bear al dute?

ERRETOREA.—Gizonaren balioa ez dago ardietan, bere gizontasunean baizik.

BORDAXURI.—Erakutsiko die Bordaxurik, besoak naiko luzeak dituela burla ta far guziak galazteko.

ERRETOREA.—Gure egiñalak egin ditzagun, ez lagun urkoa azpiratzeko, obetzeko baizik.

BORDAXURI.—Zer diozu? Jende zikin oyekek, oinbeste kalte neri egin ondoren, nik orain lagundu bear diedala? Zorrik ere bai al diet?

ERRETOREA.—Goragoko jendea apalagokoa-rekin beti zorretan dago.

BORDAXURI.—Zer zor diot nik jende zarpaill orri?

ERRETOREA.—Zor diozu zerori zauden mallara altxatzea...

BORDAXURI (*Asarre*).—Nere mallan jarri bear ditudala? Esazu ba, nere etxean sartu bear ditudala, nere ondasunetan parte eman bear dietala,... Esazu ba, bein ola asi ezkerok, oyen alaba nere semearekin ezkondu bear dedala...

ERRETOREA.—Oyeko danak eginda ere, oraindik zorretan zifñake oyekin...

BORDAXURI.—Zer? Nor gaude burutik gaizki... zu ala ni? Bañan zer zor diot jende orri, zer?

ERRETORA (Botza ozenduz).—Zor diozute zure estimua... Zor diozute zu bezenbat badirelako estimua... eta zor hori ez da ezkontzaz edo moltsaz pagatzen den zor bat, bainan gizontasunez.

BORDAXURI.—Ez niza bethi gizon agertu?

ERRETORA.—Ongi eztima-zkitzu, eta zuen arteko makurra denborak laburrez xuxenduko dira.

BORDAXURI.—Ez nuen uste holakorik aditzea zure ganik, jauna. Uste nuen gure arteko jenderik elgar hobeki sustengatuko ginuela...

ERRETORA.—Ez da "gure arteko jenderik"! Denak elgar iduri gira... Zer xedez jina zinen gero?

BORDAXURI.—Ez dautzut gordetzen, hunat jina nintzela, jandarmetarat eta jaun auzapezaren baithan izan nizen bezala, zuri ere galdatzeko, jende horieri zerbait erran dezazuten, onez ez bada beldurrez bederen ixil ditena...

ERRETORA.—Ene berri badakite...

BORDAXURI.—Ez ahal dituzu hainitzik kondenatu?

ERRETORA.—Artzaina ez da artaldearen kondenatzeko, bainan bai salbatzeko.

BORDAXURI.—Hola denaz gainean, ikusten dut pabillunketari izaita ez dela enetzat gisa...

ERRETORA.—Zuhurrek ikus hori... Jakin zazu haatik, kargu baten uztea, haren ohoratzea baino errexago dela... Kargua ohoratu, utziz baino estimu gehiago zinukela...

BORDAXURI.—Ohoratu ondoan bildu dutan estimuaren gatik, ez niz batere kargu gose... Agur, jauna,...

ERRETOREA (*Boza goratuz*).—Zor diozu zure estimazioa... Zor diozu, zu ainbat badiralako estimazioa... eta zor ori ez da, ezkontzaz edo boltsaz. gizontasunez baizik pagatzen dan zorra.

BORDAXURI.—Ez al naiz beti gizon agertu?

ERRETOREA.—Ondo estima itzazu eta zuen arteko okerrak denbora laburrez zuzenduko dira.

BORDAXURI.—Ez nuen uste zuregandik olakorik aditzea, jauna. Uste nuen gure arteko jendeak alkarri obeto lagunduko geniola.

ERRETOREA.—Ez dago “gure arteko jenderik”! Danak alkarren antzekoak gera... Zer asmoz etorri zera?

BORDAXURI.—Ez dizut gordetzen onera etorrria naizela, jendarme ta alkate jaunarenean izan naizen bezelaxe, zuri ere eskatzeko jende orri zerbait esan dezayozutela, onez ez bada bildurrez beintzat ixildu ditezen...

ERRETOREA.—Nere berri badakite...

BORDAXURI.—Ez zenitun askorik kondenatuko...

ERRETOREA.—Artzaya ez dago artaldea kondenatzeko, salbatzeko baizik.

BORDAXURI.—Ola dan ezkerok, ikusten det palio-eramalle izatea ez dala meretzat...

ERRETOREA.—Ori, zerorrek ikusi... Jakin zazu orratik, kargu bat uztea kargua onratzea baño errexago dala... kargua onratuz, kargua utzita baño estimazio geyago izango zenukela...

BORDAXURI.—Onratu ondoren bildu detan estimazioarengatik, ez naiz batere kargu zale... Agur, jauna,...

ERRETORA.—*Nahi duzun bezala... agur!*

(Bakarrik) *Goratzea, goratzea errex da... gorako jendetarik dela... Gorago eta eginbide gehiago da... Ez da goratu behar bere buruaren zerbitzatzeko, bainan handik bertzen hobeki zerbitzatzeko... Goratzea bere buruaren kargatzea da... Ez kargurik har, karguen ez ongi bethetzekotz... Ez mespresa apalagoak... Amodioaren eskualdea goitik behera da. Gorago direneri da lehenik ahalagoen maitatzeta... Ez badiote gorakoek amodio horri abiadura emaiten, gain beheren arteko josturarik ez da izanen...*

JOANA (Berriz ere, lehen aldian bezala, erretorari irriz dago. Zerbitzatuz).—*Bertze norbait jin aintzin, jauna, askal zaite othoi... Janez ere mintza baititake aingeruekin...*

ERRETORA (Jarriz).—*Ha, zer trixtezia... Holako orazione ederretan aingeruekin ari izanki eta, berriz zutarat jautsi behar dutala...*

OIHALA

ERRETOREA.—Nai dezun bezela... agur!

(*Bakarrik*) Goratzea, goratzea errexia da... goiko jendetakoa danean... Gorago ta eginbide geyago dago... Ez da iyo bear norbere buruari serbitzeko, andik lagun urkoari obeto serbitzeko baizik. Iyotzea norbere burua kargatzea da... Ez kargurik artu, kargua ondo ez betetzekotan... Ez apalagorik despreziatu... Amorioaren barrutia goitik beera dago... Gorago dagoanan dagokio lenbizi apalagoa maitatzea... Ez badiotte goikoak amorio orri asiera ematen, ez da izango goi-bekoen arteko josturarik ta alkartzetik...

JOANA (*Berriz ere, lengoan bezela, erreto-reari parrez ari zayo. Serbituz*).—Beste norbait etorri baño len, jauna, bazkaldu zazu mesedez... Janez ere aingeruekin itzegin dezakezu ta...

ERRETOREA (*Exeriz*).—Au tristura... Olako otoitz ederretan aingeruakin ari izan da, berriz ere zugana jetxi bear detala...

O Y A L A

SEIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Hil-erriak. Erditik, hil herrietarat jausteko eskalerak. Eskaleren pean, biz-pahiru eskualdun tomba.

JOKOLARIAK.—Paxkal, Bordaxuri, Hil-botza, Erretora.

PAXKAL (Tomba baten gainean jarria, pinta bat arno aintzinean, ber bera elheketa ari).—*Hauxe da gau ederra... Bordaxuri, kasu hiri... Musikariak engoitik aphailatzen ari dituk... Oren baten buruko, oi zer tutak... Gizagai-zoa Bordaxuri... Erhotzen hasia omen da. Hilak eta ezkeletak eta ikusten omen ditu... Eta heiekin mintzatzen ere omen da... Ori aski du hunat jitea elhestatzerat... Izanen du kumpaiña ederra elhestatzeko, hemengo egoiliar guziekin... Debru zoroa...*

Ez niz ez ni oraino hortaratua... Nun othe da hil-herri zaina? Hitzartuak gire elgarretaratzeko, pinta arno hunen husteko... Arno buxundatua da gero...

Zer gau ederra... Gu hemen elgarretaritzen girela nork salhatu othe dio jaun erretorari? Debru mutzurdin tzar horiek seguraz ere...

SEIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Kanposantua. Erditik, kanposantura jeisteko mallak. Mallen pean, bi edo iru bat euskal illobi.*

JOKALARIAK.—*Paxkal, Bordaxuri, Il-boza, Erretorea.*

PAXKAL (*Illobi baten gañean exerita, pinta bat ardo baten aurrean, bere buruarekin izketan*).—Auxe da gau ederra... Bordaxuri, kontuz... Soñulariak onezkero prestatzen ari dituk... Ordu bataren inguruan, a zer turutak!... Gizajoa Bordaxuri!... Erotzen asi omen da. Illak eta eskeletuak eta ikusten omen ditu... Eta izketan ere egiten omen du ayekin... Nai-koa du onera etortzea itzegitera... Izango du konpañia ederra izketarako emengo lagun guzietan... Gizajoa...

Ez naiz ni oraindik ortaratu... Nun ote da kanposantu-zaya? Pinta ardo au ustutzeko alkarri itz emanda gaude... Markako ardoa da gero...

Zer gau ederra... Gu emen alkartzen gerala, nonk salatu ote dio erretore jaunari? Milla demoniozko neskazar oyek dudarik gabe...

Ies, zoin berant heldu zautan hura berriz... Botoila hunen hasteko ere tire-boxoinik ez diat... (Entseatzen da idekitzerat bizpahiru moldez: azpitik joz, gain behera inharrosiz, hortzez) Brien-ariña nola idek ordian?... (Xutiturik berriz ere entseatzen da idekitzerat, besoazpian, zangoen artean, tomba bati joz eta hola... Kexu gorrian jartzen da). Ha, idek hadi ba... Egarrria niok, idek-hadi, zozoa,... (Botoila pausatzen du tomba baten gainean, eta haren aintzinean belhauniko, othoitzean lotzen zaio). Alo, idek-hadi, idek, giazoa,... (Koleran eskuetan hartzen du, bota nahi balu bezala, debruetan harat). Idek-hadi... Ez nezakala kolera... Idek-hadi edo hausten hut... (Potaka eta milikaz lotzen zaio). Ho, kampotik bederen edaten ahal banu... Hum, ez baitu haatik, berinak arnoa pasatzerat uzten...

To, ago hor... (Tomba baten gainean pausatzen du eta ixtant bat ixilik dago). Ha, ez du Jainkoak ideki nahi... Ontsa da... Beraz debrurik balinbada, botoila hau idek dezatela... Ha, ez da ez Jainkorik ez debrurik gehiago. (Ikaratua) Ya, ya, ya,... Nor da hor heldu? Jaun erretora othe da hori?... Gorde gaiten... (Gordetzen da).

BORDAXURI (Kapa beltz batez behti, emeki emeki jausten da eskalerer beheiti, penaz herbaieldua mintzo da). *Hilak, heldu niz zuen egoitzetarat, biziak ez bainute gehiago bakean utzi nahi... Ene izena bethi enekin dut... Bainan ize-naren ahalak urrundu dire ene ganik... Ez naute gehiago norbaitzat hartzen ez kampo-koek ez eta ere etxe-koek, ez eta Jainkoaren gizonen... Hola ez nitake gehiago bizi... Axal mamiz hustua bezala niz, ihizi basa azken*

Bañan, zeñen berandu datorren ori ber-
 rriz... Botilla au asteko ere tresnarik ez diat...
(Idikitzera sayatzen da, bi edo iru modutara:
azpitik joz, goitik bera astinduz, ortzakin...).
 Baña, nola idiki ordea?... *(Zutik jarri ta be-*
rriz ere idekitzera sayatzen da, besapean, anka
artean, illobi bati joaz eta ola... Asarre gorrian
jartzten da). Ia, idiki adi ba... Egarri natxiok,
ideki adi, zoroa,... (Botilla illobi baten gañean
uzten du, aren aurrean belaunikatu ta otoi-
tzean asten zayo). Ia ba, idiki adi, idiki, gai-
xoa,... (Asarretu ta eskuetan artzen du, dea-
bruetara bota nai balu bezela). Idiki adi... Ez
nazakela asarretu-azi... Idiki adi edo ausiko
aut... (Musuk.a eta milikatzen asten zayo). O,
 kanpotik beintzat edan al banu... Um, eztu
 ordea kristalak ardoa pasatzen uzten...

To, ago, or... *(Illobi baten gañean uzten du*
eta pixka baten ixilik dago). A, ez du Jaun-
goikoak idiki nai... Ondo da... Beraz, deabru-
rik baldin bada, botilla au idiki dezatela... A,
ez dago ez Jaungoikorik ta ez deabrurik. (Ika-
ratuta) Ya, ya, ya,... Nor etorri da or? Erre-
tore jauna ote da? Gorde gaitezen... (Gorde-
tzen da).

BORDAXURI *(Kapa beltz batez jantzita, poli-*
ki poliki malletan beera jeisten da; penaz ar-
galduta mintzatzen da). Illak, banator zuen
 egoitzetara, biziak ez bainaute geyago pakean
 utzi nai... Nere izena orain ere nerekin det...
 Bañan izenaren almenak nigandik urruti dau-
 de... Ez naute geyago inortzat ez kanpokoak,
 ez etxeakoak, ezta Jaungoikoaren gizonak ere...
 Ola ez niteke geyago bizi... Mamiz ustutako
 axala bezela naiz; zakurrak basoko piztiari

zalapartetan zakurrak segitzen duten bezala, etsai multzo batek inguraturik naukate... Hil-en tombak idek zitezte enetzat... Suntsi nadila... ez deus bilaka nadila... Ez deus bilaka nadila...

HIL-BOTZA (Apal, latzgarri, emeki mintzo tomba petik bezala).—Sortuz geroz betikotz sortua haiz.

BORDAXURI (Ikaretan).—Nor da hola mintzo?

HIL-BOTZA.—Bertze munduko botza mintzo zauk.

BORDAXURI.—Ha, ez bainintz bederen sortu...

HIL-BOTZA.—Sortzea Jainkoak, zortea hihaurek...

BORDAXURI.—Hi, hilak, zuen bethiereko ixiltasunak ingura nezala...

HIL-BOTZA.—Hobendunentzat ez da ixiltasunik...

BORDAXURI.—Bakea, bakearen eske nabil...

HIL-BOTZA.—Hobendunentzat ez duk bakerik...

BORDAXURI.—Ho, adixkideak, nun zarezte ene adixkideak?

HIL-BOTZA.—Gaizkiliarentzat ez da adixkiderik, bekatuzko lagunik baizik...

BORDAXURI.—Zer? biziak ez aski... hilak ere etsai...

HIL-BOTZA.—Hire etsairik handiena, hire baithan.

BORDAXURI.—Ene baithan?

HIL-BOTZA.—Ba, hire baithan den hobena...

BORDAXURI.—Urrun dadiela ene hobena ene ganik.

azken zalapartetan segitzen dioten bezela, etsai mordo batek inguratuta nauka... Illobiak, idiki zaitezte neretzat... Desegin nadi-lla... Ezerezera biurtu nadilla...

IL-BOZA (*Apal, latzgarri, poliki ta illobi azpitik bezela mintzatuz*).—Sortu ezkerro, betiko sortua aiz.

BORDAXURI (*Ikaraz*).—Nork itzegin du ola?

IL-BOZA.—Beste munduko bozak itzegin dik.

BORDAXURI.—A, sortu izan ez banintz beintzat...

IL-BOZA.—Sortzea Jaungoikoak, suertea erorrek...

BORDAXURI.—Ai, illak, zuen betiko ixiltasunak inguratu nazala...

IL-BOZA.—Erru dunentzat etzegok ixiltasunik...

BORDAXURI.—Pakea, pakearen eske nabil...

IL-BOZA.—Erru dunentzat etzegok pakerik...

BORDAXURI.—O, adiskideak, nun zerate, nere adiskideak?

IL-BOZA.—Gaiztoarentzat etzegok adiskiderik, pekatuako lagunik baizik...

BORDAXURI.—Zer? biziak naikoak ez ta... illak ere etsai?...

IL-BOZA.—Ire etsairik aundiena, ire gogoan.

BORDAXURI.—Nere gogoan?

IL-BOZA.—Bai, ire gogoan dagon pekatua...

BORDAXURI.—Joan dedilla nere pekatua nigandik.

HIL-BOTZA.—*Urrun igorrak.*

BORDAXURI.—*Nola igor dezaket?*

HIL-BOTZA.—*Sar-hadi urrikitan...*

BORDAXURI.—*Urrikitua ahal niz?*

KIL-BOTZA.—*Dolutua hiz, ez urrikitua...*

BORDAXURI.—*Ez urrikitua?...*

HIL-BOTZA.—*Urrikiak galdatzen du aithor-
mena.*

BORDAXURI.—*Aithortzen dut.*

HIL-BOTZA.—*Hihauri, ez duk aski, deneri be-
har duk aitortu.*

BORDAXURI.—*Ha, malurusa ni, ene bizia ez
dezaket uka... ez, ez,... Bordaxuri ez daiteke
umilia... Umiliatzea, itxurarik gabeko gizon
bilakatzea litake... Nahiago dut hál, bizien
artean hil bat bezala bizi baino... Eta zer? Ni
hobendun... Baditut nik ere ene arrazoinak...
Hilak, hil tombak idek zitezte... Hilak, mintza
zitezte... (Erho begi batzu ikaratuak egiten di-
tu). Bainan zer ikusten dut? Ala burua gal-
tzen ari dut? Ha ene burua... Zer da eni lu-
zatua dagon ezkeleta hori?... Hortik, hortik,
tombatik... Ha!... (Oihu izigarri batean, eska-
leretan, sahets baten gainerat erortzen da).*

HIL-BOTZA (Emeki boza dardarikatuz).—*Ma-
lu-ru-sa,... ma-lu-ru-sa, be-thi-kotz, be-thi-kotz.*

(“Galerianoa”ren kantu hauk entzuten di-
re oihal gibeletik... erdi amets batean bezala,
Bordaxurik entzuten ditu).

*Kantatzerat nihauzu alegera gabe,
ez baitut probetxurik trixtaturik ere,
nehun deusik ebatsi, gizonik hil gabe,
sekulakotz galerak neuretako dire.*

IL-BOZA.—Bota zak.

BORDAXURI.—Nola bota dezaket?

IL-BOZA.—Sartu adi damutan...

BORDAXURI.—Damurik bai ote det?

IL-BOZA.—Damurik bai, damu onik ez...

BORDAXURI.—Damu onik ez?

IL-BOZA.—Damu onak aitormena eskatzen du.

BORDAXURI.—Aitortzen det.

IL-BOZA.—Ez dek naikoa eure buruari aitortzea, danai aitortu bear diek.

BORDAXURI.—A, zoritxarrekoa ni, nere bizitza ez dezaket ukatu... ez, ez,... Bordaxuri ez di-teke umildu... Umiltzea, itxurarik gabeko gizona biurtzea izango litzake... Nayago det il, bizien artean il bat bezela bizi baño... Eta zer? Ni errudun... Baditut nik ere nere arrazoyak... Illak, illobiak, idiki zaitezte... Illak, itzegin zazute... (*Ero begi ikaratuak jartzen ditu*). Bañan zer ikusten det? Ala burua galtzen ari naiz? A, nere burua,... Zer da nigana luzatuta dagon eskeletu ori... Ortik, ortik, illobitik... A!... (*Oju izugarri batez, malletan sayets baten gañera erortzen da*).

IL-BOZA (*Poliki, boza dar-dar emanaz*).—Zorri-txa-rre-koa,... zo-ri-txa-rre-koa, be-ti-ko,... be-ti-ko.

(*"Galerianoa"-ren kantu auek entzuten dira oyal atzetik... Erdi ametsetan bezela Bordaxurik entzuten ditu*).

Kantatzera nijoa bate pozik gabe,
ez baitet probetxurik tristaturik ere,
iñun ezer ostu ez, gizonik il gabe,
sekulako kartzelak neretzat dirade.

PAXKAL (Agertzen da... Harritua behatzen dio Bordaxuriri... Publikoari mintzo).— *Zer gertatu zaio huni? (Ikaratua) Hila da naski. Apezketarat juan behar dut... (Jalitzen da).*

(“Galerianoa”-ren kantuak).

*Ene aita da gizon kontsideratua,
semia galeretan du segurtatua,
nun nahi othoitzean belhanikatua,
saindu iduri debru madarikatua.*

*Elizan sartzen dire debozioriek,
iduriz dohazila saindu guziekin,
beren liburu eta arrosarioekin,
debruak pesta onik einen du hoiekin.*

*Hok eman izan ditut ez xangrinatzeko,
ahide adixkidek kuraia hartzeko,
eta partikulazki, aita, zuretako,
kantu hauk aditzean semiaz orhoitzeko.*

BORDAXURI (Begiak idekitzen ditu zerbait ikusten balu bezala... Burua pixka bat altxatzen du... Botz apal hil batez mintzo da).— *Barka zedatak, Piarres,... barka... (Burua pausatu eta azken hatsa botatzen du).*

PAXKAL (Agertzen da eskalera buruan).— *Huna nun den, jaun erretora.*

ERRETORA (Agertuz).— *Ha, arrazoina du, ba... Ies, Ies,... Zer gertatu zaio huni? (Hurbiltzen zaio Bordaxuriri... Foltzua hartzen dio... Grimasa bat egiten du... Absoluzio bat emaiten... Xutitzen da eta jenderi mintzo). Hunek aldia egina du... Bordaxuri, etxalde gi-*

PAXKAL (*Agertzen da... Bordaxuriri arrituta begiraten dio... Jendeari dio*). Zer gertatu zayo oni? (*Ikaratuta*) Illa da noski. Apaizaren billa joan bear det... (*Irteten da*).

("Galerianoa"-ren kantuak).

Nere aita da gizon kontsideratua,
semia giltzapean daduka sartua,
nun nahi otoitzean belaunikatua,
santu antzeko deabru madarikatua.

Elizan sartzen dira deboziorekin...
itxuraz dijoaztela santu guziekin,
beren liburu eta errosayoekin,
deabruak festa onik eingo du oyekin.

Ok jarri izan ditut ez tristuratzeko
aide adiskideak koraje artzeko,
baita're batez ere, aita, zuretzako,
kantu ok aditzean semeaz oroitzeko.

BORDAXURI (*Begiak idikitzen ditu, zerbait ikusiko balu bezela... Burua pixka bat altxatzen du... Boz apal il batez itzegiten du*). Barka zaidak, Piarres,... barka... (*Burua erori ta azken arnasa botatzen du*).

PAXKAL (*Mallen buruan agertzen da*).—Ona nun dan, erretore jauna.

ERRETOREA (*Agertuz*).—Ai, arrazoi du, bai... Jesus, Jesus,... Zer gertatu zayo oni? (*Bordaxuriri urbiltzen zayo... Pulsua artzen dio... Keñu bat egiten du... Absolutzioa ematen... Zutitu ta jendeari dio*). Onek bere aldia egin du... Bordaxuri, etxaldeko jaun prestu ta sendoa,

dari zuhur eta fermua, zuzenaren zerbitzari
leiala, bainan gizon osoa... Adimendu zorrotza,
bainan bortitza... Bihotza berdura beldur-
rez, bihotz idorra... Beretzat norbait eta ber-
tzentzat norbeit nahia... Bordaxuri, guk ez
dakigunez, Jainkoak onhart dezala zutaz egin
dugun jujamendua...

OIHALA

zuzenbidearen zerbitzari leyala, bañan gizon
osoa... Buru zorrotza, bañan zakarra... Biotza
biguntzeko bildurrez, biotz legorra... Beretzat
norbait eta besteentzat norbait izan nai... Bor-
daxuri, guk ez dakigunez, Jaungoikoak ontzat
artu dezala zutzaz egin degun juizioa...

OYALA

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—*R. Artola*
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.
- 2.—*M. Soroa*
GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU
- 3.—*P. Apalategui, S. J.*
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—*Pepe Artola*
USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.
- 5.—*P. M. Urruzuno*
EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk.

6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*

RAMUNTXO

7.—*Ramos Azkarate*

GALTZAUNDI ta beste bertso asko.

8.—*Antero Apaolaza*

PATXIKO TXERREN. (Nobela).

9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*

OROITZAK ta beste ipui asko.

10.—*Bertsolariak*

ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA

11.—*Piarres Larzabal*

BORDAXURI



1027898

JB-888

